

EKIN ETA EKIN

Herria ezagutzen



6. UNITATEAREN GIDA PEDAGOGIKOA

Herria ezagutzen

ARRASATEKO UDALA



EKIN ETA EKIN

Herria ezagutzen

LEHEN HEZKUNTZAKO

6.MAILAKO

IRAKASLEENTZAKO

GIDA PEDAGOGIKOA



6. UNITATEAREN GIDA PEDAGOGIKOA: EKIN ETA EKIN

1.- ATZERA BEGIRA. AURRERA BEGIRA

ARRASATE EZAGUTZEN! Proiektuaren 6. unitatea da eskuartean duzuna, bilduma honen azkena, hain zuzen ere.

Bukaera emateko bilduma honi, azkeneko bost unitate didaktikoetan saiatuko gara orain artean landutakoak errepasatzen eta gogoratzen. Unitatearen erdia erabiliko dugu horretarako, hainbat galderaren bidez gainbegiratu azkarra emango diogu herriko historiari.

Gure herriaren garapena, herritarren bizimodua eta herrian gertaturiko hainbat jazoera historiko ezagutu dugu unitate didaktiko hauetan. Herria eta herritarren bizimoduaren bilakaera zein izan den jakingo dugu, bai eta haiek hartutako erabakien bidez herria zelan joan zen egituratzen ere.

Kultura ondarearen hainbat arloren berri izan dugu eta denona den giltzarria, euskara, aukeratu dugu ardatz unitate didaktiko honi eta bildumari bukaera emateko. Herriaren koherentzia eta nortasuna mantentzeko euskara aukeratu dugu, kultura gutxi definitzen baitu bere mintzoa oinarri hartuta.

Denboraren joanean, herritar berriek beste hizkuntza batzuk ekarri dituzte herrira eta haien ondoan euskarak biziraun behar duenez, saiatu gara gure herriko euskararekiko historia jasotzen eta harenganako sentsibilizazioa lantzen.

Gure arbasoengandik jaso dugun herria, gu, oraingoan, denon artean, aurrera eramaten ari gara, baina biharko erabakiak, herriaren martxa eramango dutenak bilduma hau lantzen ari diren ikasleak izango dira.

Horregatik, unitatearen bukaeran eskatu diegu ikasleei atzera begirako proiektu bat egiteko eta denoi aurkezteko. Honekin batera ere, aurrera begirako beste proiektu bat imajinatzea iradoki diegu, jakiteko zer-nolako herria irudikatzen duten eta zein herri motatan bizi nahiko luketen gure ikasleak.

“Ekin eta ekin” da unitatearen titulua, gauzak lortzeko eta proiektuak gauzatzeko ezinbesteko ezaugarria baita ekinzaletasuna. Arrasatek badu, balore hori eta horregatik islatu nahi izan dugu lau arlotan: **jolasean, kantatzean, lanean eta euskaraz egitean**, gure herriaren iraupenaren berme gisa.



2.- 1960KO ETA 1970EKO HAMARKADAK . XXI. MENDERAKO TRANTSIZIOA

Seigarren mailako ikasleentzako egina dago unitate didaktiko hau, seigarren mailakoak 2001.urtean jaiotako umeak dira, XXI. mendearen seme-alabak. Mende honetan hazitako gizakiak, berriz, ikasleen gurasoak eta irakasleak XX. mendean jaiotakoak dira.

Aurreko alean kooperatibaren sorrera eta auzoen sorrera ezagutu genituen. Hortik aurrera jasotako erreferentea XXI. mendera arte iritsi da.

Garai gogorak eta itxaropentsuak izan ziren 1960 eta 1970eko hamarkadana. Arrasate herri industrialia, langilea izan da betitik, eta 1980ko hamarkadan krisi ekonomikoa ezagutu genuen.

Beste herri batzuetatik migranteak lanera etorri ziren gurera eta denontzat etxebizitzak egin behar izan zituzten. Hazkunde horrek hirigintza arazoak sortu ditu hainbat hamarkadetan.

Euskara kinka larrian izan zen, ikasteko eta irauteko ahalegin handiak egin zituzten arrasatearrek. Elkarteak (AED) eta eskolak (gaveskolak-AEK-Ikastola) sortu ziren horretarako eta ekimen ugari antolatu zituzten euskararen alde eta euskara errekuiperatzeko.

Franko diktadorea hiltzear zegoela, kultura elkarteak, elkarte gastronomikoak, jai batzordeak sortu ziren herrian eta elkartegintza borborka ari zen. Gure kulturaren aldeko hamaika ahalegin eta proiektu egin zituzten eta dena egiteko zegoen. Horren isla "Danok" elkarteak 1971n antolaturiko "Kanta berri" jaialdia ekarri dugu gogora unitatean.

Testuinguru honetan gazte mugimenduak indarrak esnatu ziren eta ekimen ugari antolatzen hasi ziren herrian, gazte taldeak osatuz eta gaztetxeko proiektua amestuz. Musika arloan rock eta punk talde asko sortu ziren herrian. Drogaren mamuaren atzaparrak agertu ziren herrietan eta Arrasate ez zen salbuespena izan.

Arazo sozialei aurre egiteko eta gure kultura zein euskaraz defenditzeko, herritarrok borrokatu genuen errealitate hori eraldatzeko.

Protesta eta manifestazio ugariaren aldia izan zen. Protestak eta errebindikazioak arlo politiko eta sozialekoak izan ziren.

JARDUERA: Unitateko testua lagungarri izan daiteke galderari erantzuteko, baina ondo legoke ikasleei transmititzea urte haietako testuingurua.
Behatu argazkiak. Zer dakizu horiei buruz?

Koadernoko 3. orrialdea.



3.- DENBORAREN ZURRUNBILOAN.

Bilduma honetan herrian izandako gertaera esanguratsuenak biltzen saiatu gara datozen bi orriotan.

Gertaerak denbora joanean kokatzeko denbora zurrunbiloan kokatuko ditugu, golpe bista batez, gure herriak izan dituen pasarte historikoak eta bilakaera ikusteko. Jakinaenez, ezinezkoa da bi orritan jasotzea pasarte gehienak, denboraren hasieratik gaur arte, baina murgilduko gara historiaren zurrunbiloan, miloi urtez urte, mila urtez urte, mendez mendez, urtez urte gure historiaren gainetik hegaldia egiten.

Ezkerreko goikoaren ertzean eguzkia dago, bizitzaren sorburua, eskumako aldean lauburu eguzkiaren mugimendua imitatuz, euskaldunen zeinu gisa hartu dena. Beheko eskumako ertzean eguzki lorea, naturaren fruitua tradizioz euskaldunek beren ateetan jartzen dutena, izpiritu txarrez babesteko, gaixotasunak uxatzeko uztartuz natura eta eguzkia landare batean. Beheko eskumako ertzean hareazko erlojua, denborak aurrera jarraitzen baitu etengabe, eta oraina une orotan iragana bihurtzen da gupidarik gabe.

1.-**(k.a. 40 milioi)** Lurrak itsas azpitik azaleratu zirenean, hasi gaitezke gure herriko historia kontatzen. 40 miloi lehenago kokatu dugu. Denboraren zurrunbiloan oso atzetik hasiko gara eta gure garaira hurbilduz gero, gero eta denbora tarte txikiagoa eta gertaera esanguratsuagoak ezagutuko ditugu.

2.- **(KA 150.000 urte)** dituen hiru hartzen aztarnak Aranzadi elkarteak katalogatu ditu Lezetxikin eta horietaz gain, kobazuloan animalia basatiak ez zeudenean gizakiaren noizbehinkako presentzia agertu diren tresnengatik. Kobazulo horretan ere emakume giza besondo bat aurkitu zuen Jose Migel Barandiaran, bertan lanean 1956tik 1968ra Euskal Herrian ezagutzen den giza aztarnarik zaharrena, **80.000** bat urte dauzkana. 1996. urtetik Lezetxiki kobazuloa aztertzen dabilen Aranzadi elkartearen partaide Albaro Arrizabalagak aipatu du hiru giza mota bizi zirela koba horretan: Homo Sapiens, Hombre de Neanderthal eta Heidelbergensis.

3.- **(k.a 6.000)** Horren ondoren neolitikoaren garaia irudikatu dugu, kobazuloetan bizi ziren haiek, eguraldia epeldu zenean, bizimodua aldatu zuten, nekazaritza eta abeltzaintza hasi ziren lantzen, bizilekua aldatu zuten eta garai berriak hasi ziren.

4.- **(824-1620)** (Jauzi handia ematen da zurrunbiloan, Brontze aroa (-ka 3000-ka 900) jasotzen ez bada, Murugainen dagoen herrixka, **Brontze Arokoa** dugu. Hedadura txikiko herri harresitua da eta leku estrategikoan dago. Ez dute zalantzan jartzen igarotze hartan **erromatarrak** gure inguruan eta hemen izan zirela, baina Arrasaten ez dago erromatar garaiko aztarnarik. Meatzerreka auzoko San Balerio ermita ondoan, lurpetik 1804an Madrila eraman zuten San Baleriori buruzko inskripzioa. erromatar aztarna bezala aztertzen ari da eta baita aztertzen dihardu Mercedes Urteaga arkeologoak Garagartzako koba batean topatutako hainbat aztarna ere. Orreagako gudan (778) euskaldunek Karlomagnoaren ejertzito frankoa garaitu zuten. Geroago,



kristo ondorengo 824 urtera goaz urte horretan Iruñeko erresuma sortu baitzen, geroago Nafarroako erresuma bihurtu, eta 1620. urte arte iraun zuen .

5.- **(1200)** Gaztelak eta Aragoik Nafarroako hainbat lurralde hartu zituzten 1054an eta 1035ean eta 1176an Londresko Laudioen bidez, Nafarroak Errioxako lurraldeak galdu zituen eta gaur egungo Bizkaiko hainbat lur. Data hori baino lehen eta 1200. urtera arte Nafarroako erresuman zegoen, baina Gasteizko setioaren ostean, Nafarroaren Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko eskualde batzuk Gaztelako Erresumak konkistatu zituen. Garai hartan, egun ezagutzen dugun Gipuzkoa ez zen existitzen eta bere lurraldean hiru entitate zeuden: "Aitzorrotzia", "Tierra de Ipuscaia" eta "San Sebastian". 1200tik aurrera Gaztelaren menpean izan zen Arrasate. Geroago, 1512an, Gaztelak konkistatu zuen Nafarroa kontinentalaren lurralde handi bat, Iruñea hiriburua barne, eta 1521ean, Noaingo gudan eta 1522an, Amaiuraren setioan, nafarrak konkistaturiko lurraldea berreskuratzen saiatu baziren ere, ez zuten lortu. Ondorengo mendeetan zapalkuntza gogorra jasan zuten nafarrek. Azkenean, 1620ean, Erresuma independente gisa, desagertu zen bortuz bestaldeko Nafarroa, Luis XIII errege frantsesak beregenatu zuelako.

6.- **(1260)** 1260ko maiatzaren 15ean, Gaztelako erregeak hiri gutuna eman zion herriari, Arrasate zen lekuari Mont(t)dragon izena jarri, San Esteban de Ezatorafe (San Esteban del Puerto) herrian. Izan ere, Nafarroako erregeak Gasteiz hiriarik emandako forua berresten zuten hiri gutunak. Hiri gutuna udaletxeko artxiiboan dago gordeta.

7.- **(1353)** 1353. urtean Ugaran bailarako Gesalibar, Garagartza, Udala, Uribarri, (parrokiadun herririkak-"aldeas"-) eta Erenuzketa, Isasigaña eta Oleaga (parrokiarik gabeko tokiak-"lugares") auzotartasun kontratu baten bidez Arrasateko herrian, "kontzejuan", integratu ziren.

8.- **(1448) Arrasateko erreketeta.**

Historiko da 1448ko ekainaren 23an Guraia (oñaztarrak) eta Bañez (ganboarrak) leinuen arteko borroketan gertaturiko ekintza.

Gertaeraren hasiera 1448ko ekainaren 11n izan zen, gurayarrek deituta, Gomez Gonzalez Butroekoa,, bere gizonekin Arrasaten azaldu zen eta hiribilduan kokatu zen. Bañeztarrek abisua helarazi zioten Oñatik Pedro Belez Gebarakoari. Hark, bere bandoko aliatuen indarrak bildu ondoren, bere gizonekin iritsi zen Arrasatera eta hiribildua inguratu zuten.

Setioan barrukoak errenditzen ez zirenez, ganboarrek San Kristobaleko basilikan bilduta, 1448ko ekainaren 23an, hiribildua erretzeko erabakia hartu zuten.

Eraikinen egitura zurezkoa zenez, hiribildu osoak suak hartu zuten eta bi etxe bakarrik salbatu omen ziren.

9.- **(1500) Baserriaren sorrera.** XVI. mendearen hasieran eraiki zituzten lehen baserriak, baina ez aurretik egondako eraikinen garapen edo jarraipen bezala, ukazio moduan baizik. Baserriak eraiki zituztenek osotasun bat bilatzen zuten; eraikinak behar familiarak, ekonomikoak, sozial, kultural eta espiritualak ere bete behar zituen. Baserritarrak luzerako proiektu bati begira jarri ziren.



Eraikuntzarako teknologia ona eskuragarri izan zuten baseritarrek XVI. mendean. Adituek diote eraikitako lehen baserriak arkitektonikoki ondoen eraikitakoak eta funtzionalenak direla. Garai hartako eraikuntzari buruz zegoen jakituria guztia erabili zuten baserri horiek eraikitzeko. Profesionalek egin zituzten, arkitektoen aurrekariak, aurrez katedralak eraiki zituzten argin, zurgin eta maisuek.

10.- (XV-XVI. mendeak) Altzairugintzaren une gorena.

Arrasateko meatzeetako mearen ugaritasunaren eta kalitatearen ondorioz, XIII. mendetik altzairugintza eta hura merkaturatzea izan da Arrasateko herritarren jardun nagusia.

Burdina lantzeko ezagutza eta usadioa antzinatik zegoen zabaldua, eta antzinatik izan da garrantzi handiko industria Arrasaterentzat.

Arrasatek XVI. mendearen hasieran 1.900 biztanle zeukan eta Donostiaren atzetik Gipuzkoako komertzio bolumen handiena zuen eta probintziako bigarren handiena, biztanleen aldetik zen

11.- (1794/1833/ 1872). Gerra diputazioa/ Gerra karlistak.

Frantsesak 1794an sartu ziren Gipuzkoara, Getarian diputazioa bilduta zegoenean, eta hasieran saiatu zen frantsesekin tratua egiten, eta aukera ikusi zuen Gaztelako koroarekin apurtzeko. Arrasaten sortu zen "*Diputación a gerra*"k frantsesen aurka borrokatzea defendatu zuen, Espainiak Gipuzkoarekiko zeukan burujabetasuna onartuz.

Antzinatik euskal lurraldeen erregeek onartutako eskubideak zituzten: Foruak. Euskaldunek euskaldunen aurka borrokatu zutenean bereziki foruak defendatzeko izan zen. Testuinguru hartan Euskal Herrian bi gerra karlista izan ziren, lehena (1833-1839an) eta bigarrena (1872-1876an).

12.- (1902) Biteri eskolak. 1902an, **Pedro Viteri Aran**ak bultzatutako **Biteri eskola**, laikoa eta doakoa, Arrasaten hasi zuen bere ibilbidea eta Gipuzkoan bederatzi herrietan ikastetxe bana eraiki zuen. Biteri eskoletako bi irakasle, **Felix Aranok eta Teresa Garciak** oso lan berritzaile egin zuten erabiltzen zuten irakaskuntza metodologia bereziarekin. Eskolak eraikitzeko kostua bere gain hartzeaz gain, Fundazio bat sustatu zuen garai hartako 200.000 pezeta maisu-maistrei ordaintzeko.

13.- (1906). Union Cerrajeraren sorrera. "Vergarajauregi Resusta y Cia" eta "Cerrajera Guipuzkoana" enpresak batutakoan, Union Cerrajera enpresa sortu zen 1906. urtean. Enpresa honek denbora luzean herriaren geroa markatu zuen eta herriaren motor ekonomikoa eta soziala izan zen.

14.- (1918). Trenaren iritsiera. 1918ko otsailaren 15ean "Vasco-Navarro trena" Arrasatera iritsi zen (historia iturri batzuk 1917ko abenduaren 22an esaten dute) eta gero Bergarako Mekolalderaino egin zuten trenbidea. 1919ko irailaren 3an inaguratu zen.



15.- (1936) 1936ko gerra. 1936ko gerrak ondorioak izan zituen herriko bizitzan eta herritar guztiengan, irabazleak eta galtzaileak izan zirelako. Batailoiak osatzea, borrokak, ebakuazioak, fusilamenduak, presoak, erbesteratuak, debekuak, zigor ekonomikoak eta gosea. Garai gogorrek izan ziren herriarentzat eta frankismoaren sasoia ia lau hamarkadetako ibilbidea hasi zuen. Debagoieneko fusilatuen oroimenez egindako oroitarria da zurrunbiloan agertzen den marrazkia.

16.- (1942).Uholdeak Uholde handiak izan dira herrian baina historialariek jasotakoaren arabera, handienetakoa 1942.urtekoa zen. Ilunabarrenean euri jakas hasi eta urak, portaloiko arkuraino iritsi omen ziren. Triskantza handiak izan ziren industrietan, Union Zerrajera oso kaltetuta izan zen, nekazaritzan eta eguneroko jarduetan. Hiru urteko ume bat hil zen.

17.- (1943). Eskola Profesionalaren sorrera. 1941ean Jose Maria Arizmendiarieta Arrasatera iritsi eta gero, 1943an, herriko enpresa batzuen laguntzarekin, Lanbide Eskola sortu zuen. Biteri fundazioaren eskoletan izan zen lehendabiziko egoitza. Hogei ikaslerekin zabaldu zen eta lehen ikaslea Domingo Agirre izan zen. Esperientzia kooperatibistaren garapenean oinarri izan da eskola, eta hastapenetan, Juventud Deportivarekin -Jose Maria Arizmendiareta elkarte hartako partaidea zen- lotura handia izan zuen.

18.- (1956). Kooperatiben sorrera. Union Cerrajerako bost langile (Usatorre, Larrañaga, Gorrogogoitia, Ormaetxea eta Ortubai) Arizmendiareta-aren ideien jakitun eta enpresak zeukan "paternalismotik aldenduz" ULGOR sortu zuten 1955ean Gasteizen eta 1956an Arrasatera etorri ziren. Talleres Arrasate-Cooperativa industrial (TACI) 1957an sortu zen lehenengo kooperatiba izan zen.

Arrasaten 1956ko urteaz geroztik **hasi zen kooperatiba mugimendua garatzen**, egun, Euskal Herrian eta munduan oso ezaguna dena, hain zuzen ere, Fagor, Lagun Aro, gizarte prebisioan, Euskadiko Kutxan finantza munduan, ikerketaren arloan, Ikerlan, emakume-kooperatiba moduan Auzo Lagun, eta kontsumo arloan Arrasateko San Jose Kooperatibak Euskal Herriko beste 5 kooperatibarekin elkarturik Eroski kooperatiba sortu zuen.

19.- (1960ko hamarkada). 1959ko urtetik aurrera eta 1960ko hamarkadan herriaren populazio hazkuntza azkarra eman zen, bertan zeuden lantegietako lan eskaintzak asetzera. Batez ere, Espainiatik etorri ziren eta hazkunde honi erantzuna emateko etxebizitzak eta auzoak eraiki zituzten erreka arroetan eta mendien maldetan.

20.- 1975/1976/1977. Haratuzteak./Santamasak/Maritxu kajoi. Frankismo aroa bukatu aurretik, elkartegintza borborka zegoen herrian eta kultura elkarteak, elkarte gastronomikoak eta jai batzordeak sortu ziren. Frankok 1936ko gerratik debekatutako Haratuzteak hasi ziren errekooperatzen 1975ean, galdutako Santamas jaiak 1976an, herriko hainbat kultura talde, koadrila eta pertsonen osatutako komisiñuak berreskuratu zituen. Komisiño horrek ere 1977an Maritxu Kajoi jaia sortu zuen, txikiteroen zaindari hartuz.



21.- (1979). Frankismoaren ondoko 1. udal hauteskundeak. Espainian Franko diktadorea 1975eko azaroaren 20an hil zen. Espainian, 1977ko ekainaren 15ean, Franko ostean lehendabiziko hauteskundeak izan genituen, eta Espainiako Konstituzioari buruzko erreferenduma 1978ko abenduaren 6an; 1979ko apirilaren 3an Espainiako lehendabiziko udal hauteskundeak. Arrasaten Jose Antonio Ardanza Garro izan zen alkatea.

22.- (1980ko hamarkada). Krisi ekonomikoa. 1970eko hamarkadan “petrolio krisia” izan genuen, Persiako golkoeko nazioek –munduko petrolio ekoizle handienak– Yon Kippur gerran Israeli laguntza eman zioten nazioei petrolio ez saltzeko erabakia hartu zuten. Produkzioa murriztu, garestitu eta mendebaldeko nazio industrializatuetan krisialdi handia sortu zen.

Geroago, krisi honen jarraian sortu zen ziklo aldaketa handi bat nazio industrializatuetan, non-eta altzairugintza, itsasontzigintza eta meategien enpresa askok eta haiekin produkzioan loturiko lantegi txiki askok itxi egin behar izan zuten. Langabezia tasak izugarri igo zuen eta enpresa askok itxi egin behar izan zuten. Oso urte gatazkatsuak izan ziren.

23.- 1983. AEDren sorrera. Euskararen eta euskal kulturaren normalizazioa lortzeko, 1983an Euskal Herriko lehendabiziko euskara elkarteak sortu zen. Hainbat arlotan lan egiten dihardu: kultura, literatura lehiaketa, sentsibilizazio arloa, euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena, euskalduntzea.- zahar berri proiektua, TTak gazte taldea.

24.- (1990ko hamarkada). Ondasun higiezinaren espekulazioa. Hamarkada hartan, Espainiako estatuak etxe asko egiten zuen, Alemania, Frantzia eta Italia batera hartuta egiten zituzten adina etxe. Etxeak egin eta egin, urte batetik bestera etxeak garestiagoak eta hamarkada honetan eta hurrengoan espekulazio inmobiliario handia izan genuen, eta geroago ezagutu dugun ‘burbuila inmobiliarioa’ puzten joan zen.

25.- (1991). AGAKOren sorrera. AGAk, Arrasateko Gazte Asanbladak, Gurea zinema zena okupatu zuen 1987ko apirilaren 4an. Gazteek gauza asko antolatzen zuten bertan, kontzertuak, ikastaroak, antzerkiak eta hitzaldiak. 1989ko martxoaren 1ean AGAko ordezkariak gaztetxeko giltzak udaletxean utzi zituzten.

Gaztetxearen sorrera bi urte geroago, 1991ko aste santuan, inork gutxik gaztetxe esperientzietan pentsatzen zuenean, gazte batzuek San Frantziskoko kalostretatik ospitale zaharrera –Gurea zinema zaharraren pare-parera– sartzeko ohitura hartu zuten, eta polito-polito haiek batzen joan eta oharkabean hura gazteen topaleku handi bat bilakatzen joan zen. Horrela jaio zen herriko gazteek zutik eta bizirik mantendu duten herriko bigarren gaztetxea.

Hortik jaio zen, beraz, 1991n AGAKO (Arrasateko Gazteen Alternatiben Kofradia Organizatua) izena. Aste Santuan okupatu zuten Gaztetxea. Hilabeteak eta urteak aurrera joan ahala, giroa eta antolakuntza hobetzen joan ziren. Kontzertuen kontuengatik herritar askok kezak aurkeztu



zituzten, baina azkenean adostasuna lortu zen. Edozein modutan ere, ospitale zaharretik irten ziren eta egun, 2003tik Gaztetxea dago Uarkape frontoiaren atzealdean.

26.-(2003) Emakume txokoaren irekiera. Herriko emakume taldeek emakumeentzako plan orokorra egitea bultzatu eta proposatutakoan, Udalarekin batera emakumeen kontseilua osatu zuten eta aukera berdintasunerako udal plana egitea proposatu zuten. Horren ondorioz, Emakume saila (Berdintasun saila) sortu zuen Udalak 1995eko urtean, eta harrezkero bere jardun berdintzailea garatu du etengabe. Uarkape frontoiaren atzealdean Udalak Emakume txokoa ekipamendua zabaldu zuen 2003an, Euskal Herriko lehenetarikoa izan zen. Harrezkero, sexuen arteko aukera berdintasuna sustatzeko ikastaroak, hitzaldiak, forumak, jardunaldiak eta hiruhileko programazioak antolatu dituzte.

27.- (2001-2013. XXI .mendean.) Migranteen etorrera. Migranteen etorrera. XXI. mendearen hasieran, Euskal Herrira estatutuaz kanpoko etorkin asko etorri ziren, testuinguru ekonomikoa ona zen eta eragin hori igarri zen jaiotzetan eta eskoletan. 2007tik aurrera munduan finantza eta ekonomia krisia hasi zen munduan 2007tik aurrera, eta nazio industrializatuetan gogor kolpatu zuen langabezia, murrizketak eta pertsonen eskubideak ere bai. Hortik aurrera moteldu egin zen etorkinen etorrera eta herrira itzuli ziren, baina azkeneko urteotan etorrera hori egonkortu egin da eta gure kaleetan euskara eta gaztelaniaz gain, beste hizkuntza asko entzuten ditugu.

28.- 2007-2013. Ekonomia eta finantza krisia, krisi sistemikoa, kapitalismoaren aurpegi gogorra. Estatu Batuetatik hasita Europaraino azkartasuna izugarriarekin zabaldu da krisia, beste motibo batzuen artean, finantza burbuilak bultzatuta: langabezia, kaleratzeak, miseria, etxegabetzeak... Krisi honek murrizketa handiak eragin ditu orain artean ezagutu dugun ongizateko estatuan, hezkuntzan, osasunean, pentsioetan, zerbitzu publikoetan, eta, batez ere, gazteentzat, itxaropenezkoa ez den etorkizuna. Langileek lehen lortutako eskubide asko galtzen ari dira etengabe eta lehen munduan bizimodua aldatzen ari da nabarmen. Munduko hainbat eta hainbat herritan, gosetea eta gaixotasunek eraginda, miseria gorrian bizi dira.

29.- 1913-2013. Futbolak 100 urte Arrasaten. 2013an 100 urte betetzen dira "Club Deportivo Mondragon" futbol ekipoa sortu zela Arrasaten eta lehendabiziko zelaia San Andres auzoko Etxaluzen izan zuen. Izen asko izan du ekipoak eta herriko historiaren zati garrantzitsua da; eragina izan du futboletik haratago.

Unitate didaktikoan, aurreko unitate didaktikoetan landutako gertaera historikoak jarri ditugu denboraren zurrumbiloan. **Gure iritziz, jazoera interesgarriak jaso ditugu, baina beste denbora zurrumbilo batzuk izan daitezkeen egileen arabera eta ikuspegi arabera .**



JARDUERA: Aztertu gure herriko denbora zurrunbiloa. Gero, osatu ezazue zuek zeuona ordenagailua erabiliz.

Egindako denbora zurrunbiloa aztertu dezakegu ikasleekin: zer den, zertarako erabiltzen den, eta zein irizpiderekin kokatzen diren gertaerak. Zurrunbilo ereduak balio dezake beste gai batzuk aztertzeko; auzoaren historia, ikastetxearena, bere biografia, herriko lantegi batena edo eraikuntza batena.

Ikasleei proposatu diezaiekegu denbora zurrunbiloa egiteko, eta horretarako denbora zurrunbiloa marrazteko eskatuko diegu, unitatearen diseinua jarraituz.

Lan hori egiteko ikasleak binaka jarri ditzakezue. Denbora zurrunbiloa egiteko gaia aukeratuko du bikote bakoitza keta gero zein elementuekin osatu behar duten eztabaidatu beharko dute.

Koadernoko 4. eta 5. orrialdeak.

4.- IKASITAKOA BERRIRO GOGORATZEN

Denbora zurrunbiloa baliagarria izan da herriko historia eta jazoera garrantzitsuak kokatzeko. Aurreko unitateetan landutako gaiak eta ikasitakoa berriro gogoratzen saiatuko gara.

Horretarako, aurreko unitate didaktikoak berreskuratuko ditugu eta banan-banan ikusiko ditugu. Lau ikasturtetan, sei unitate didaktiko banatu ditugu: 2010-2011 ikasturtean 1., 2. eta 3. unitatea, 2011-2012an 4. unitatea, 2012-2013an 5. unitatea eta 2013-2014an 6. unitatea. Litekeena da lehendabiziko ikasturtean hiru unitate didaktikoak aztertu ez izana eta une honetan 6. mailan dagoen ikasle batzuk unitateren bat lantzeke izatea.

Hala izanez gero, landu ez diren unitateak hartu eta bertan proposatzen dugun errebasoaren bidez, posible da azaletik bada ere, unitatearen edukia errebasatzea.

Aztertu bada, hasieratik aukera izango dugu norberak bere idazketan izan duen garapena, letra ikusiz.

Lana banaka egin beharrean, talde txikiak egin daitezke, unitate adina, eta talde bakoitzari gai edo unitate baten laburpena egiteko eskatu geniezaioke

5.- "IZAN GINELAKO". HISTORIAURREA.

Hasiera batean Euskal Herria itsaspean zegoen eta lur mugimenduen ondorioz, itsas azalera lurra agertzen hasi zen. Fosilak ezagutu genituen eta herriko lehen biztanleen bizitokia, Lezetxikiko kobazuloa, ezagutu genuen eta suaren erabilerari esker nola aldatu zen haien bizimodua.



Giroa epeldu zenean, Neolitikoan, kobazuloetatik ibai inguruko lurretara jaitsi ziren bizitokia aldatuz. Eta abeltzaintzaren eta nekazaritzaren bidez bizimodu berria garatu zuten.

Burdin aroa etorri zen gero. Monumentu megalitikoak eraiki zituzten eta gure herrian aro hartako erreferentzia gisa Murugain mendian izan zen hirixka gelditu da.

Bilduma honen 1. unitatean ikasitakoa gogora ekartzeko, hainbat ariketa egiteko proposamena egingo diegu ikasleei.

JARDUERA 1.

Zelan sortu ziren gure lurrak eta mendiak?

JARDUERA 2.-

Zelan izan dugu horren berri?

JARDUERA 3.- Herriko lehen biztanleak non bizi ziren?

JARDUERA 4.- Euskal Herriko giza aztarnarik zaharrena non aurkitu zuten? Zein aztarna zen?. Gaur egungo zein auzotan dago?.

JARDUERA 5.- Kobazuloen izenak ez direnak, ezabatu.

Koadernoko 6 .orrian

6.- "ERREMENTARIEN ZALAPARTEAN". ERDI AROA.

Bigarren ale honetan ez dugu aztertu erromatarren eragina herrian, aztarnarik gelditu ez zelako, baina ezaguna dugu bailaran eta Euskal Herrian izan zuten eragina. Edozein modutan ere, Garagartzako kobazulo galerian garai hartako aztarnak omen daudela aipatu du arestian arkeologo batek, eta erromatar garaiko aztarnatzat ere jotzen du Meazterreka auzoko San Balerio ermita ondoan lurpetik 1804an Madrila eraman zuten San Baleriori buruzko inskripzioa.

Saiatu gara gogora ekartzen Nafarroako erresumaren herria zela, Gaztelak emandako hiri gutuna, herria osatzeko antzinako Arrasateri atxiki zitzaizkion hainbat aldea eta toki eta mende ugariz arrasatearren jardun nagusia izan zen altzairugintza.

JARDUERA.- Nafarroako erresumaren baitan zein 4 herrik osatzen zuten Leintz bailara (Aitzorrotzia).

JARDUERA 2.- 1200ean, bailara konkistatutakoan, Gaztelako erregeak 1260an hiri gutuna eman zion Arrasateri. Horrek zein aldaketa ekarri zion herriari?.

JARDUERA 3.- Zein elizate eta toki atxiki zitzaizkion Arrasateri 1353an?

JARDUERA 4.- Arrasaten meategien jarduera antzinatik lantzen zen eta bertan landutako altzaria oso ezaguna zen munduan, baina zein auzotan zeuden meategiak?

Koadernoko 7. orrian



7.- ERREMENTARIEN ZALAPARTEAN". ERDI AROA.

Guraia (oinaztarrak) eta Bañez (ganboarrak) leinuen arteko borroketan gertaturiko ekintza historikoa zen 1448ko erreketak. Erdi Aroan herriak orain duen itxura eta jarduera desberdina zen eta elementu horiek gogora ekartzeko hainbat jarduera proposatuko dizkiegu horretan sakontzeko. Herrian, oraindik ere, aro horretako hainbat elementu gelditzen dira: hiribildua, harresia eta eraikuntzaren bat. Horietaz baliatuko gara gogora ekartzeko aro hau.

JARDUERA 5.- Arrasateko erreketarik handienetarikoa noiz izan zen?. Nortzuk erre zuten herria? Zergatik?

JARDUERA 6.- Gaur egun, badago herrian Erdi Aroko kalea, eraikinaren elementuren bat? Hausnartu eta saiatu zaituzte ipintzen dauden guztiak.

JARDUERA 7.- Nolako bizimodua zuten herritarrek?

JARDUERA 8.- Aipatu hiribilduan eta hiribildutik kanpo zeuden ogibideak

Koadernoko 8. orrian

8.- HANDITZEN-HANDITZEN.

Erdi Aroaz geroztik herrian erreketak asko izan ziren, lehengo herria sarri eraiki izan dute berriro. Hiribilduaren ondoan errebalak sortu zituzten gure arbasoek. Urte askotan herriak bere egitura mantendu zuen, baina lehen industrializazioarekin (1900-1916) eta 2. industrializazioarekin (1960-1970) auzo berriak sortu ziren herrian eta herria nabarmen handitu zen. 1950ean 10.014 biztanle izatetik 1981ean 26.045 biztanle izatera pasatu zen eta horrek arazo ugari sortu zuen.

JARDUERA 1.- 1353an herria handitu zen eta meategien ustiatetaren ondorioz biztanleria ugari zen eta denak ez ziren sartzen harresien barruan. Harresietatik kanpo zein errebal eraiki zituzten?

JARDUERA 2.- Lehen industrializazioarekin 1900-1916 lantegiak eta biztanleak ugari ziren herrian eta trenak garrantzia izan zuen. Noiz izan zen 2. industrializazio handia?

JARDUERA 3.- Zein auzo sortu ziren XX. mendeko 1960 eta 1970eko hamarkadetan?. Aipatu bost auzo.

JARDUERA 4.- Kontatu zer dakizun zure auzoko jatorriari eta garapenari buruz?

Koadernoko 9. orrian



9.- "GURE ALTXORRA". NATURA. KIROLA.

Ura, ibaiak, animaliak, parkeak, mendiak, ortu ekologikoak, zaborrak birziklatzea, garraiobideak, kirola, hedabideak...gure bizitzaren altxorren inguruan errepasoa egingo dugu bost jarduera planteatuz.

JARDUERA 1.- Uholde handiak izan dira herrian, baina zein izan zen handiena?

JARDUERA 2.- Herriko erreken urak garbiak dira?. Horrela bada, nola lortu da aldaketa hori?.

JARDUERA 3.- Zein parketan jolastu duzu zuk? Deskribatu parkea eta azaldu zer jarriko eta kenduko zenukeen parke horretatik.

JARDUERA 4.- Nola ikusten duzu herriko naturaren egoera, herria kontserbatuta dago? Saiatu zaituz jartzen zeintzuk diren zure ustez, naturari dagokionez, dituen arriskurik handienak? Nola egingo genuke iraunkorrago gure herria?

JARDUERA 5.- Zein kirol duzu gustuko egitea edo ikustea. Gogoko duzun kirol horren inguruan, badakizu ezer Arrasaten izan duen historiaz?

Koadernoko 10. orrian

10. "IZAN GINELAKO GARA". INDUSTRIALIZAZIOA.

Arrasateko industrializazioan erreferente izan da, Union Cerrajeraren itzala herrian eta herritik kanpo oso handia izan delako. Meategien ustiatzearen gainbehera eman eta gero, industrializazio garaia izan genuen herrian. Zerrajeraren altzoan enpresa asko sortu ziren herrian. 1956an Union Zerrajeratik irten zuten langile batzuek sortu zuten ULGOR enpresa kooperatiba, eta esperientzia hark sekulako garrantzia izan du herriarentzat. Enpresa horien historia eta izaera gogoratzeko, lau jarduera planteatzen ditugu ikasleek gogoratzeko edo gehiago sakontzeko planteatutako galderetan.

JARDUERA 1.- Union Cerrajera enpresa ia mende batean herriaren erreferentzia izan da. Badakizu noiz sortu zen? Zein produktu egin zituen? Non zegoen? Eta orain?

JARDUERA 2.- Arrasateko kooperatiben oinarrizko printzipioak hamar dira. Baten bat gogoratzeko duzu?.

JARDUERA 3.- Emakumea, hainbat arotan lan munduan bazterturik egon da. Arrasaten, 1969an emakumez osaturiko lehen kooperatiba sortu zen. Badakizu zein den?. Enpresa horrek zein jarduera du?

JARDUERA 4.- Lehen Union Cerrajerak esparru handia okupatzen zuen bere eraikinez. Gaur egun zer dago? (Atera argazkia Santa Barbaratik).

Koadernoko 11. orrian



11.- "IZAN GINELAKO GARA". HIRIGINTZA. KULTURA ANIZTASUNA. HEZKUNTZA.

Bilduma honen bosgarren unitate didaktikoan herriko hirigintzaren bilakaera eta garrantzia aztertu genuen industrializazioarekin batera. Euskal Herria herri migratzailea izan da, baina azkeneko ehun urteotan etorkinen etorrera izan du eta kulturalki eragin handia izan du herrian. Etorkin horiek beren kultura eta ohiturak ekarri dituzte eta elkarbizitza beste kultura batzuetakoekin partekatzen dugu.

Hezkuntza arloak Arrasaten sekulako garrantzia zuen eta du. Hiru gai desberdin baina ikasleek dakitenarekin edo bildu dezaketen informazioa baliatuz, nahi adina sakon dezakete gai hauetan. Helburu horrekin jarduera hauek proposatzen ditugu.

JARDUERA 1.- Zein auzotan bizi zara? Aipatu zein zerbitzu (kultura guneak, ikastetxeak, osasun zerbitzuak, industria guneak, merkataritza guneak...? Erdialdean biziz gero berdin. Aipatu zure auzoko (edo erdialdeko) bost kale?

JARDUERA 2.- Kultura aniztasuna: Eskolara sartzean, etorri berriek hartzen duten lehen inpresioa oso garrantzitsua da. Zure eskolara, duela gutxi, ikaskideren bati harrera egin diozue? Zer egin duzue?

JARDUERA 3.- Unitate didaktikoaren arbelean azken mendearen ikastetxe asko ezagutu dugu. Gaur ikastetxe eta gune asko daude. Ikertu eta idatzi ahal dituzun eskola-gune guztiak.

Koadernoko 12. orrian

12.- UNITATE DIDAKTIKO GUZTIETATIK NAHASIAN

Asko dira sei unitate hauetan landu ditugun gaiak, herriko kultura ondareari buruz. Apartatu honetan modu azkarrean, hainbat gairen inguruan, errepaso arina egingo dugu hamar galdera-erantzunen bidez.

Koadernoko 13. orrian



UNITATEAREN IBILBIDE DIDAKTIKO eta BIRTUALA:

Historia pasarteak auzoka.

Denboraren zurrunbiloaren atalean gure herriko gertaera historikoak kokatu ditugu. Arrasate herria luzea izanik, hainbat gertaera historiko auzoka kokatu ditugu hobeto ezagutzeko ikasleek. Horretarako, ibilbide historikoa ezagutzeko ahal bada, oinez egiteko proposatzen dugu, baina bidaia didaktiko birtuala Arrasateko maparen inguruan ere egin daiteke.

1.- ERDIGUNEA (Biteri eskolak). Historiaz kargaturiko gunetik abiatuko gara, Biteri eskolak izan ziren tokitik, egungo Biteri plazatik, hain zuzen ere. 1902an ireki zituzten eta Arrasaterentzat eta Gipuzkoarentzat sekulako aurrerapena ekarri zuen.

2.- ERDIGUNEA (1936ko gerraren Debagoieneko fusilatuen oroitarria). Garibai etorbidetik joanez, Laubide plazaraino joango gara, eta han, 2003an, 1936ko gerraren Debagoieneko fusilatueei eskainitako oroitarria dago, gerra anker baten lekuko.

3.- ERDIGUNEA. (1448ko Arrasateko erreketeta). Laubide plazatik, Iturriotzeko atetik pasatuz, Iturriotz kalera joango gara Banez de Artazubiagaren etxe eraikina ikusteko. Bañeztarrak ganboarren leinukoak ziren eta Guraien kontra (onaztarrak) borrokatu zuten. 1448ko erreketan parte hartu zuten familiakoek. Sutean soilik bi etxe mantendu ziren zutik. Urte luzez gogoratu zen sute hori eta ondorio latzak izan zituen.

4.- ERDIGUNEA (Gaztelua/hiribildua). Bañez de Artazubiagaren etxetik Iturriotz kalean gora metro gutxira Harresi aretoa dago, non harresiaren zati bat ikusi daitekeen. Herri harresitua zen Arrasate eta egun hiribildu ederra du, iragan horren ispilu. Handik gora Goikobalurantza joango gara, non-eta gaur agerian dauden gazteluko dorreen oinarriak.

5.- MEATZERREKA (Meategiak/altzairugintza). Goikobalutik Bizkai etorbidera jaitsiko gara handik Meatzerreka auzora joateko. Herriko historia ahaztezina, hainbat mendetan arrasatearren jardun nagusia. Udalatxen magalean meatokirik garrantzitsuak; Lastabobia, Jaunporobia, Lurgorri...eta Euskal Herrian izan dugun gremiorik zaharrena, San Balerioko benakeroen Kofradiarena, bertan sortu zen.

6.- UDALA (Igokundearen ermita). Meatzaga baserritik gora joanda, Udalatxen maldatik, lehengo meatokien tokitik Udala auzora iritsiko gara. Abeltzaintza lantzen duen auzoa da, eta duela urte asko mendiaren gailurrean Igokunderen ermita izan zen. Egundaren aztarnek hor diraute, Garibaik ezagutu zuen eta haren deskripzioa egin zuen. Arrasateko Juan Carlos Gerrak kanpaina bat antolatu zuen 1925ean, ermita berreraikitzeke, baina ez zuen lortu.



7.- GESALIBAR (Bigarren gerra karlista). Arrasateri atxiki zitzaion 1353. urtean. Betidanik ezaguna izan da sulfurozko uren iturburuak izateagatik (uretzak) eta Garibaik 1567an aipatzen zuen ur haien egokitasuna gaixotasunak sendatzeko. Bainuetxea 1827an zabaldu zuten. Bigarren karlistadan (1873-1875) bainuetxea ospitale militar moduan erabili zuten eta hilerri berria egin zuten. Bainuetxean ere Antonio Canovas del Castillo Espainako gobernuburua hil zuten Angiolillo anarkistak 1987ko abuztuaren 8an.

8.- GARAGARTZA (Lezetxiki). Errepidearen ondotik Garagartza auzoraino iritsiko gara. 1353an ere Arrasateri atxiki zitzaion eta gure historian, toki erreferentziala du, bertan Leze Txiki kobazuloa dagoelako. Kobazulo honetan giza besonodo bat aurkitu zuten, Euskal Herrian ezagutzen dugun giza aztarnik zaharrena.

9.- URIBARRI (1353an herria osatzen). Errekan behera jarraituz, Urdaixena baserritik aurrera Uribarri auzora iritsiko gara. Ugaran bailarako Gesalibar, Garagartza, Udala, Uribarri (parrokiadun herrixkak-aldeak) eta Erenuzketa, Isasigaña eta Oleaga tokiak) auzotartasun kontratu baten bidez Arrasateko herrian "kontzejuan" integratu ziren.

10.- URIBARRI (Ibarreta azpiko hilketak). Egun, Ibarretagain baserriaren aurrealdean Polmetasak du lantegia, eta errepidearen beste aldean Puntu Berdean (garbigunea) dago. Sarreraren ezkerrean, bi gurutze daude bertan gertaturiko hileta baten lekuko moduan. 1448ko erreketaren gertaeraren mendeku gisa hartu zen gertaera hura. Martin Bañez Artazubiagakoa eta Juan Ibanez Barrutikoa ganboarrek Ibarretan zeukaten burdinolara joan eta noiz irtengo zain Aramaioko bost oñaztarrek hil zituzten. Horren oroimenez, hil zuten tokian bi gurutze jarri zituzten eta Antsa Ozaetakoak egindako eresiaren testuak.

11.- SAN ANDRES (Kooperatiben sorrera). Oraingoan ibilbide luzea proposatzen dugu. San Andres auzora joateko bi aukera emanek: herri barrutik, Gasteizerantz doan bidea hartzen, Takolo (Bedoñabeetxebarri) baserriraino eta beste bat, Markuletik, saihebidetako errepidetik Mugarrietaraino. Takolotik ikusiko ditugu hurbil dauden kooperatibak eta Mugarrietatik ere bai. 1956an UCko bost langile (Usatorre, Larrñaga, Gorroñogoitia, Ormaetxea eta Ortubai) Arizmendiariaren ideiak jarraituz ULGOR enpresa sortu zuten.

12.- SAN ANDRES (San Josepe erromeria). Takolotik (Bedoñabeetxebarri) erreka pasatuz,



Intxausti baserriaren eskumatik, gaur egungo Umezaintza haurzandegiaren eraikinerira iritsiko gara eta handik gora, saihesbidea gurutzatzeko zubi batera joango gara. Zeharkatutakoan, metro batzuetara ikusiko ditugu San Josepe ermitaren aztarnak; lehenengo erreferentziak 1614koak dira. Oso ospetsua zen San Josepe zelaian egiten zen erromeria, maiatzeko San Jose Patrocinio egunean, herri osoa joaten zen hara, meriandutzen eta olgeta egiten.

13.- ZALDIBAR (Union Zerrajeraren sorrera). Errekaren ibilbidetik, San Andrestik errekan behera Zaldibar auzora. Bi lantegiren elkartzearen ondorioz, 1906an Union Cerrajera sortu zen, ia mende osoan itzal handia utzi duena Arrasaten. Zaldibar auzoan kokatu zituen tailer handienak, 22.000 metro koadroekin. Bergarakoenak 10.000 metro koadrokoak ziren eta Zigorrolakoak 2.000 metro koadro zuen.

14.- ZALDIBAR (Trenaren geltokia). Vasco-Navarro trenea 1918an iritsi zen Arrasatera eta 1919an Arrasate-Mekolde (Bergara) linearen inaugurazioa egin zuten. Trenak sekulako garrantzia izan du Arrasaterentzat arlo guztietan, baina 1967ko abenduaren 31n kendu zuten.

15.- BEDOÑA (Baserriak). Arrasateko bizimoduaren ezinbesteko erreferentzia da baserria. Historikoki arrasatearrak burdingintzan, altzairugintzan aritu izan dira, baina nekazaritzan eta abeltzaintzan ere bai. Lan jarraitu horren lekuko baserriak dira. Egun, batzuk etxebizitza moduan erabiltzen dituzte, beste batzuk baserri mistoa kaleko lana eta baserriko lana tartekatuz eta banaka batzuk baserrietik bizi dira. Bedoñan izaera horretako baserri batzuk daude eta, oraindik ere, aldaketa fisiko handirik gabe mantentzen da auzoa. Udalak Kurtzetxiki mendia (Larragain) berreskuratu du bazkatzeko eta aisiladirako.

16.- BEDOÑA (Loramendi). Mendibitzu baserrian Juan Arana Ezpeleta "Loramendi" jaio zen eta garai hartako poeta euskaldun handienetakoa izan zen. Oso gazte hil zen eta auzoan bi omenaldi handi egin zituen.

17.- MUSAKOLA (Union Cerrajeraren instalazioak). Musakola edo Zig(a)orrola edo biak. Biak erabiltzen dira auzo honi deitzeko. Eliza zegoen tokian Zigorrolaazpikoa baserria zegoen. Baserria bota eta gero, hortik gertu Union Cerrajerak lantegi bat eraiki zuen. UCK Zaldibar auzoan beste lantegi handi bat zeukan. Lantegia jartzeaz gain langileentzat ere etxebizitzak egin zituen.

18.- SANTA TERESA (Gaztelako hiri gutunaren sinaketaren herriko kale izena).

Gaztelako erregeak Arrasateri emandako hiri gutuna, San Esteban de Eznatorafe (San Esteban del Puerto) Jaengo probintzian sinatu zen. Santa Teresa auzoan dago herri horren omenez hautatu den kale izena. Hortik ezkerretara joanez gero, Makatzena auzoan, egun Mesedetako



ikastetxea dagoen tokian, lehen **Santa Marina** zegoen baserrian, Santa Marinari eskainitako adbokazioa zuen Santa Marina de Agirre zen Arrasateko antzinako parrokia.

Koadernoko 14. eta 15. orrietan

14.- EKIN JOLASTEARI

Betidanik jolasak berebiziko garrantzia izan du haurrengan eta horren ondorioz pertsonengan. Bizitzaren lehen urteetan ez dago irakaslerik ez eta material didaktikorik ere. Lehen urteetan umeari jarduera esanguratsuenari ematea beste biderik ez zaiola gelditzen, jolasari, hain zuzen ere. Haurrek jolasaren bidez eta bere jakin minarekin, aurre egiten dio munduaren konplexutasunari, dakien guztiarekin eta ez dakienarekin. Umeak jakin nahi duen guztiarekin, estimulu guztiekin, jolasaren bidez munduari bere berrikuntza eta lilura eskaintzen dio. Gozamina eragiten dio jolasak umeari eta sentimendu horretan oinarriturik, jolasaren bidez mundu liluragarria deskubritzen joango da.

Mende askotako bizimoduan jolasa izango dute lagun umeek, baina gugana iritsi diren erreferentziak joan ziren mendekoak dira, eta Arrasateko 1936ko gerra osteko jolasak, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan jolasten zirenak idatzi ditu Jose Maria Velez de Mendizabalek, ahoz, "Ahotsak" proiektuaren bidez-AEDk, Badihardugu elkarteak eta Udalak sustaturiko proiektua eta pertsonen bidez .

1936ko gerra osteko gizarte triste hartan umeek jarraitzen zuten jolasten tebeoetako pertsonaiak erreferentzia izaten, Capitan Trueno, Goliath eta Krispin, Claudia, Sigrid, Jabato, El Gerrero del Antifaz, Roberto Alkazar y Pedrin izan ziren. Garai hartan barrakak etortzen ziren, erdigunean Zaldibarko frontoian jartzen ziren **"Ir a las barraketas de la peloteria"** esaten zuten umeek, hizkuntza zapalkuntzatat adierazpide moduan hartu daitekeena eta auzoetan, oraindik ere, eraikitzeke zeuden tokietan.**Tiobiboak, tiropitxoak, autokotxeak, noria, txurreriak... ziren postua eta gurasoen sosekin** umeak ibiltzen ziren barraketan."

Kotxe gutxi zegoen herrian, espazio handiak, eta telebista ez zen existitzen, umeak kalean jolasten zuten ordu luzeetan, haurtzaroan orduak batez ere kaleetan poliki pasatzen baitira. Gaur bezalako jolastokirik ez zegoen, herria urbanizatu barik zegoen eta espazio zabalak eta basoa gertu zegoen. Halaber, 1936ko gerraren ondorioak agerian zeuden eguneroko bizimoduan. Euskararen zapalkuntza eta galera jokoaren izenetan islatzen zen eta lengoaiaren diglosia indar handiz garatzen zen.

Mutilek frontoian jolasten zuten **"a sacarrestos (saque, resto, hurrengo eta laugarren), " a fueras"** kalean **"pelotajaurtis", "hankape", "kaniketan"**(bizkarrekos, lekas, jota-potxokanika, arrisko buena). Galduz gero, **"me habéis amurricado"** esaten zuten eta **"a lavanderas"**(aldapa behean, makurtuta, eta oreka mantentzen oin baten gainean labaintzen, jokatzeko zuten (laban beheara). **"A tape-tapes"** **"A burrichicos"** ziren beste joko batzuk eta neska zein mutikoek jolasten zuten. Bukaezinezko gerrak koadrilen artean jolasten zuten, basoetan eta parkeetan **txabolak egiten**.



Beste joko baten izen zehazgaitza **“txorro, morro, piku, t(qu)allo** zen, baina euskarak jaisten ari zen galeraren ispilua zen, sasoi hartako neska-mutilen anai arreba zaharragoek zer gehitzen zuten eskuko hatzak seinalatzen zituzten bitartean, umeen gainean jarrita zegoenean, **“Txorro, morro, piku, tallo, ke, zer dakatzu kolkuen, zorri handi bat lepuen. ¿Qué es esto? Sardin xesto!** Eta behean zegoenak ez bazuen goikoak seinalatutako hatza zein zen asmatzen, berriro ekiten zioten: **“Si hubieras dicho cuchillito, no tendrías tanto más; aceitera, vinagrera, zer dakatzu kolkuen..”**.

Kideen artean ekipoak aukeratzeko, **“hacer (F)sichas”** egiten zuten, bi aukeratzailleak bata bestearen aurrean jarri eta bi metrora eta beren oinak elkarrengana hurbildu behar zituzten, bestearena lehenik ukitzen zuenak galtzen zuen.

“Alebika” jolasten zuten, umeak gordetzen ziren eta topatzera!

Nesken arteko jokorik erabiliak ziren **“a tabas”**, joko honetan jokatzeko bildotsen tortolosak ziren beharrezkoak, **“A ankakoskos”** eta **“a la cuerda”**. **“Sokasaltoan”** jolasteko kanta asko erabiltzen zituzten: **“Una y dos tomate con arroz”** **“Al pan y al vino que entre conmigo”** **“No hay en España, leré, puente colgante leré, “Al cocherito leré, me dijo anoche leré”, “Al pasar la barca, me dijo el barquero”, “A Bedoña subir, de Bedoña bajar”**....Soka indar handiagok mugituz gero, birritan oin azpitik pasatzen denean, **“Abikos”** zen. **“Gomeetara”** ere jokatzen zuten, goma bat bi neskek ankeekin eutsita.

“Ankakoxkoetara” beharrezkoa zen klariona margotzeko joko eta harria, hankabakarrak saltoka zeinek hobeto pasatzen zuen sei edo zazpi laukizuzenak.

“A pote-potes”, “a toca torres” “Gorde gordeka”, “a trompas” (txiba), **tiragomasa**(urkila “ y “formakoa, bi goma eta larru zati bat harriak botatzeko erabiltzen zituzten” eta nola ez **“Doke”**an.

Hainbat joko aipatu daitezke: **“Txapak”, “oillo itsua”, “al corro las patatas”, “pase misú”, “prendak”, “comiditas”** (dendetara), **cuatro esquinitas, kromotara, “zaku lasterketak, “alturitas” “a lo matón** (futboleak), **“al pañuelito”, “tapaculos”, “indio eta bakeroetara”, “guardia eta lapurretara”, “al palo “al hingue”, “uztaia”, “balon prisionero”, eta baloi zein pilotarekin egindako saioak.** Auzoko jaietan, lasterketez gain, **itxulapikotan** jolasten zuten.

Estatuan 1956an agertu zen telebista, eta 1970eko hamarkada hasieran etxe askotara iritsi zen. Telebista poliki-poliki joan zen okupatzen umeen denbora eta nagusia eta harrezkero telebistaren eragina ez da gutxitu, handitu baizik. Marrazki bizidunak, propio umeentzako programek, pelikulek... okupatu dute umeen jolasteko denbora, haien jolas aktiboen kaltetan. Beraz, azkeneko berrogei urteetan hezi dira umeak elektrotresna honekin eta egun, nahiz eta beste jolas mota batzuk agertu (didaktikoak, bideo jokoak, teknologia berrikoak..) umeak denbora luzea ematen dute egunero pantailaren aurrean.

Adituek diote 0-3 urteko sasoiaren garunaren garapena oso azkarra dela eta haurrak oinarrizko premia batzuk dituela; babesa, oinarrizko zaintza, afektuzko lotura sendoak, ingurua arakatzea



eta jolasa. Testuinguru horretan ekarpen gutxi egin diezaioke telebistak, baina hurrengo urteetan handitu egiten pantaila horrekiko lotura.

Telebistak garrantzi handia izan badu jolasean, jostailuen "generoa"k ere bai. Hainbat hamarkadatan mutilentzat ziren "gerretan, kiroletan, indioetan, skaleztrikean" jostailuak eta neskatilentzat "panpinak", "cocinitas", "erizainena". Jendarteak betiko errolak mantentzeko, generoen arteko diskriminazioari eutsiz, jostailuak erabili izan ditu.

Geroko belaunaldietako umeez berezko jolasez gain, joko didaktikoekin, bideo jokoekin, telebistarekin, gaur egun, teknologia berriko jolasekin eta Interneteko jolasekin batera elkarrekin bizi behar izan dute. Hortaz, gaurko umeez pantailari kateatuta jarraitzen dute eta adi egon behar da beti gurasoekin zein ordutegi, leku, programazio, iragarki, elkarrekiko erabilera eta arau erabili behar duten.

Azkeneko urteotan **Badihardugu eta AED elkarteek** Udalaren laguntzarekin "**Ahotsak**" proiektuaren barruan dihardute Arrasateko euskara eta ohiturak biltzen eta horretarako adineko jendeari hamaika grabazio eta bideo egin zaizkie helburu horrekin. Proiektu honen web orria www.ahotsak.com/arrasate da.

JARDUERA 1.-"Ahotsak" proiektuaren web orrian sartu, haur kanta eta jolasen apartatuan eta ezagutu, trasmisioren bidez, gurera iritsi diren lehengo hainbat kanta eta jolas. Aukeratu jolasa eta kanta pare bat ikasleekin aritzeko.

JARDUERA 2.- Gaur egun, jolasteko teknologia berriez baliatzen gara, gehienbat, baina azaldu zuk azkeneko hiru urteotan jolastu dituzun jokoak. Ea hamarreko zerrenda egiten duzun. Geroago, bakoitzak egindakoa partekatu, arbelean jarri eta azaldu zelan jolasten duzun.

Koadernoko 16. orrian

15.- EKIN KANTATZEARI!!

Txikitandik sehaska kantak entzun ditugu gure ondoan, eskolako kantak, gure herriko kantak eta gure egunetara iritsi dira. Kantatzea ohitura ederra da, bakarrik edo taldeka, musikarekin edo musikarik gabe, barrua astintzea eta belaunaldiz belaunaldi euskara transmititzeko balio izan du gure herrian eta Euskal Herrian. Gure herriaren hainbat balore bizipoza, alaitasuna, identitatea eta iraunkortasuna dira, eta kantatzeak balore horiek primeran islatzen ditu.

Hirugarren unitateko gida pedagogikoan jasotzen da kantu, bertsolaritza, zarzuela eta musikarekin gure herriak duen historia luzea. Nahi izanez gero, errepaso moduan, berriro aztertu



dezake irakasleak, baina norberak kantatzeak ere duen garrantzia nabarmenduz. Ekin kantatzeari, bada.

JARDUERA 1.- *Jakingo duzu, ziur asko, hemen agertzen ez den kantaren bat, ziur asko, zure gurasoei entzunda edo zuk eskolan ikasitakoa izango da, edo zure lagunekin ikasitakoa. Idatzi bertan testua eta gero kantatu zure ikaskideei. Geroago, identifikatu bertan dauden sei kanta hauek eta saiatu denok batera kantatzen.

Koadernoko 17. orrian

16. UNITATE DIDAKTIKOEN EKARPENA: ONDAREA, KULTURA, HIZKUNTZA.

Gure unitate didaktikoen bidez gure herriko historia eta kultura ondarea ezagutzen joan gara. Antzinetatik gaur egungo garaietara gauza asko aldatzen joan dira eta herritarrek ere moldatu beharra izan dute.

Horrela, gure ondarea osatzen joan da eta neurri berean, herria eta herritarrak eraldatzen.

Gure iruditeriaren kolektiboaren zatia da kultura ondarea, baina ibilbide historiko honetan zenbait adierazpide ahaztu eta galdu dira, mendez mendez, belaunaldiz belaunaldi. Ikasi dugunaren arabera orain guri dagokigu jaso dugun kultura ondarea babestu eta gure atzetik datozenei eskaintzea.

Gure ondarearen eta kulturaren adierazpide garrantzitsua da gure hizkuntza: euskara.

Koldo Mitxelenak zioen "euskararen misterioa ez dela nondik datorren deskubritzea, baizik eta nola iraun duen ikustea". Europako hizkuntzarik zaharrena, hizkuntzalariak bere jatorria ez dute ezagutzen eta Euskal Herritik zibilizazio ugari pasatu diren arren, mantendu den hizkuntza da. Xabier Erizen hitzetan, euskarak aurrera egin du "familian, lagunartean, herrian eta lurralde euskaldunetako eguneroko bizimoduan zuen indarrean eta euskaldunek, ohartu nahiz oharkabean erakusten zioten atxikimenduagatik".

Lezetxetik hona euskara izan dugu komunikazio eta duela mendebate arte herritarren hizkuntza bakarra. XX. mendearen hasieran eta erdialdean etorri ziren etorkinek ekarri zuten gaztelania, eta euskara hasi zen elkarbizitzen beste hizkuntza batekin.

1936ko gerraren ondorioetako bat izan zen euskara galaraztea toki guztietan eta frankismoaren garaian (1936-1975) erabat baztertua zegoen bizitzaren arlo guztietan, nahiz eta etxeetan nolabaiteko transmisioa mantentzen zen.



XX. mendearen 1960ko hamarkadan Estatutik etorkin asko etorri ziren eta horrek euskararen presentzia puntu kritikoetaraino ahuldu zuen. Hamarkada horretan ere, herriko hainbat taldek eta herritarrek ahaleginak egiten hasi ziren euskara suspertzeko eta ikastola bat sortu zuten 1967an, gau eskolak hasi ziren funtzionatzen eta 1971n "Danok" elkarteak "Kanta Berri" jaialdia antolatu zuen euskarazko kanta suspertzeko eta euskararen egoeraz sentsibilizatzeko. Euskararen egoera oso kritikoa zen eta 1981eko erroldan, erdaldunen kopurua euskaldunen kopurua (ondo edo zer edo zer dakitenak) baino handiagoa zen.

Harrezkero gure egunetara arte, euskara joan da berpizten bizitzaren arlo guztietan, familian, etxean eta azkeneko hamarkadan, beste herrialde batzuetako pertsonak etorri dira euren hizkuntzekin eta hizkuntza ugari entzuten da kalean.

17.- EUSKARA BERRI. EUSKARAREN KRONIKA

Oro har, aurreko atalean euskararen egoera azaltzen saiatu gara, mendeetan zein egoeratan zegoen eta zertzelada batzuen bidez gure egunetara nola iritsi den. Liburuetan jasotako gertaerei esker euskararen egoeraren berri izan dugu. Bilakaera hori hobeto kontrastatzeko nolabaiteko kronologia egin dugu eta asmoa izan da aldizkari-egunkari bat osatzea.

Egunkari horretako behealdean dago atal bat (berria) idazteke non-eta eskatzen diogun ikasleari 2025ean zein berri jarriko lukeen euskararen egoeraren inguruan. Proposatutako ariketa da euskararen inguruan dauden berri horiek eta datozen orriotan dauden informazioak irakurri eta aztertutakoan, data horretan euskarak zein egoeratan izango zen irudikatzea, eta berria idaztea.

Berri guztiak iraganean jaso dira egunkarietan erredaktatuta, bakoitzak bere datarekin, euskararen nolabaiteko aktualitate kronologia islatzeko; euskararen historia, derrigorrezkotasuna, zigorrak, sailkapena, berpizteko jarduerak eta egoera.

Behealdean urte baten erreferentzia (2025) agertzen da. Data horretan ikasleek 25 urte izango dute eta ariketan proposatzen da, orain artean irakurritakoarekin eta datozen orrialdeetan agertuko diren datuekin eta informazioarekin hausnartu ondoren, euskararen inguruan nolabaiteko berria irudikatu eta idaztea.

Egun, adin horrekin(24 urte) bikote asko sortuta izango dira eta seme-alaben kontua hasiko zaie agertzen mutil eta nesken hartz mugan. Gai horrekin lotuta euskararen **transmisioa** dator. Hori dela-eta **transmisio gaia** landu dezakegu ikasleekin, eta abiapuntu bezala horri esker euskararen iraupenaren gaia aipatu.



GARIBAIK 1571 URTEAN ZIOEN EUSKARA PENINTSULAKO HIZKUNTZARIK ZAHARRENA ZELA.

Esteban Garibaikoak bere "Compendio historial .." izeneko liburuan dio Penintsulako jatorrizko lehenengo hizkuntzatza jo zuela euskara, eta garaiko usterik zabalduena onartu.

1579. PREDIKATZAILE EUSKALDUNA IZAN BEHAR (JUAN DE ARAOZ).

Juan de Araoz Uriarte arrasatearrak Mexikora emigratu zuen eta Zakatecaseko meategietan hamabi urtez lan egindakoan, herrira itzuli zen. aberastuta, 156ean. Arrasaten ezkondu zen baina seme alabarik ez zutenez, erabaki zu(t)en , 1579ko abenduaren 16an sinaturiko codicilo (testamendua) batean beren dirua eta ondasunak erabiliko zirela Arrastan, San Frantzisko kastetxe-monastegia egiteko. Testu haren hamaikagarren klausulak hala dio:

"Item(itere) digo que es mi voluntad y deseo que el Rector Guardián de dicho colegio sea en todo tiempo religioso que sepa hablar y predicar en nuestra lengua bascongada, porque su doctrina puede hacer mucho fruto en nuestra villa y su comarca en servicio de Dios y beneficio de los fieles cristianos, naturales de ella Pido y suplico a los muy venerables. Religiosos los padres provinciales de esta provincia de Cantabria y padres definidores y Capítulos provinciales de ella, e intercapítulos, que provean siempre por Rectores guardianes de este Collegio a semejantes Religiosos de esta nuestra antiquissima Lengua Bascongada, la primera de España, pues de las cinco naciones que en Europa la hablan, caen las quatro en su provincia de Cantabria, que son la Guipuzcoana, Vizcaina, Alavesa y Navarra en España, y la quinta de Bascos de Francia, conjunta a España, en las vertientes de los montes Pirineos, de la parte de Francia, y si no lo pudiesen hacer cómodamente, no los obligo a ell, pero tórnoles a suplicar lo mesmo, dexando por más equidadd en sus manos, lo que yo tengo en las mías"

1581an hil zen Araoz Uriarte eta bere alargunak ikastetxe-monastegia hiribilduaren "extramuros"ean eraikitzea agindu zuen, eta ordudunik, Juan Carlos de Guerra arrasatearrak 1917ko uztailaren 22an, idatzi zuen bezala, 2 mende t'erdiz, kultura eta errukitasuna lantzen izan ziren, non euskara hitz egiten zen, hizkuntza ikasten Axularen "Gero" bezalako liburuarekin.

1636. KLABERIAREN BERTSOAK

" Burlatzen naiz Garibaiez,
Bai halaber Etxabez,
Zenak mintzatu baitire
Erdaraz euskaldunez

.....

Zer errefrau eder baita (Bi zutabeetan)
Hizkuntza arrotzetan,
Hura aditzera ematen
Daroezu beretan



1863. ARRASATEKO EUSKALKIA L.L. BONAPARTEK MENDEBALDEKO SORTALDEKO EUSKALKIAREN (BIZKAIERA) BARRUAN SAILKATU ZUEN.

Lous Lucien Bonapartek 1869an hala izendutako zuen sortaldeko euskalkiaren (bizkaiera) moduan, baina Euskal dialektologian aditua Koldo Zuazok **sortaldeko euskalkizat** soilik jotzen du.

Bonapartek 8 euskalki sailkatu zituen Euskal Herria eta Zuazok 5 euskalki.

Koldo Zuazoren iritziz, hemengo euskalkiaren ardatza ez da Bizkaia izan, Gasteiz baizik. Hainbat urtetan euskalki bakoitzak tribu bati zegokiolako teoria izan dugu gizartean, baina haren aburuz ez dauka zentzurik. Haren iritziz dialektoak derrigorrez sortu ziren erromatarren ostean, euskarak latinetik hitz piloa jaso zuelako eta euskalki guztietan hitz horiek berdin esaten ziren, ez berriz, dialektoak sortu ondoren ekarritako hitzak. Garai hartan Nafarroako erresuma sortzen ari zen eta Iruñea, herri handi bat izan zen euskaldunen erreferentzia kohesionatuta. Gero Nafarroako konkistaren ondorioz, indar horren nolabaiteko sakabanaketa eman zen.

Leintzeko euskalkia uste izan dugu Bizkaitik ekarritakoa zela, baina berak dioenez Arabatik euskalkiak hartu ditu erreferentzia asko eta asko Araban ere lehen zeudela eta Gasteiz zein Agurain bezalako hirietatik hitzak hartzen zituzten hemengo bailarakoek. Hau da, Leintz bailarakoak hartzaileak izan ginen. Hori dela-eta, Koldo Zuazok zuzenagoa deritzo hemengo dialektoari "bizkaiera" ordez, "mendebaldeko" euskalkia deitzea.

1896KO UZTAILAREN 4, 5, 6 ETA 7AN. Gipuzkoako lehen Euskal jaiak Arrasaten.

Gipuzkoako diputazioak, Abaddik antolatutako jaiak jarraiki, Gipuzkoan lehendabiziko euskara jaiak (lore jokoak) antolatu zituen.

1936KO URRIAREN 22AN. EUSKARAZ HITZ EGITEAGATIK JIPOITUA.

1936ko uztailaren 18an Franko general espainola armetan altxatu zen Errepublikaren erregimenaren aurka eta Espainan zein Euskal Herrian gerra zabaldu zen. Garai gogorrak izan ziren: mehatxuak, atxiloketak, hilketak, fusilamenduak, batailak...Isidro Iturbe, Union Zerrajerako langilea, nazionalista fusilatu zuten Hernanin.. Bi guardi zibilek atxilotu zuten, eta kalean bertan ikaragarritzko jipoia eman zioten emazteari euskaraz hitz egiteagatik.

1941. URTEA ESKOLETAN EUSKARAZ EGITEAGATIK ERAZTUNA ATZAMARRETAN.

1936ko gerra ostean, kultura eta euskarekiko lotura guztiak debekatzen saiatu zen erregimen garailea, euskararen erabilera modu batean baino gehiagotan zapaltzen:

"Eskolan euskeraz eitiarren aniluak emuten auien. Eta eguenetan eta zapatuetan aniluak aukenak kastigauta geraketan zan" (Benita Eraña)

Debekuak, zigorrak, jazarpenak..historian euskarak etengabeko zailtasunak izan ditu, baina guregaita iritsi da. Horretan datza euskaldunen indarra, kultura gutxik definitzen baitu bere burua mintzoa oinarri hartuta.



Hona hemen kazetari batek jasotako euskararekiko debekuak azkeneko 200 urteotako batzuk: "1776an euskarazko liburuak debekatzen dira. 1768an lehendabiziko letren irakaskuntzan euskara debekatzen da (Karlos IIIren hereje zedula). 1772an euskarazko kontabilitate liburuak debekatzen dira. 1801ean euskarazko antzerki obrak debekatzen dira. 1803an gorputz zigorrak eskolan euskaraz hitz egiteagatik. 1857an irakaskuntza gaztelaniaz derrigorrezkotasuna (Moyano legea).

1862an idazketa publiko guztietan euskara debekatzen da. 1867an, euskara obra dramatikan debekatzen da (Isabel IIaren legea). 1902an, bere hizkuntzan edo dialektoan irakasten duten irakasleei zigorra jartzea (Alfontso XIII eta Romanonesen hereje dekretua). 1923an Ekintza ofizialetan euskara erabiltzea debekatzen da (Alfontso XIII eta Primo de Rivera). 1925ean, euskarazko testu liburuak erretiratzeko eta euskaraz irakasten dutenei enplegua eta soldata kentzea proposatzen dute.

1937an Euskaraz hitz egitearen debekua ezartzen dute. 1938an debekatzen dute, euskararen erabilera erregistroetan. 1939an, hotelen errokulazioan euskara erabiltzea debekatzen dute. 1940an, epaitegietan eta dendetan euskara erabiltzea debekatzen dute. 1944an eskritura publikoetan euskara erabiltzea debekatzen dute. 1947an debekatzen dute aldizkarietan euskara erabiltzea. 1948an eskoletan debekatzen dute euskara erabiltzea. 1954an irratietan euskara erabiltzea debekatzen dute. 1964an diskoetan eta publizitatean euskara erabiltzea debekatzen dute."

1971KO EKAINAREN 24AN "DANOK" ELKARTEAK ANTOLATU ZUEN "Kanta berri " jaialdia euskarazko kanta suspertzeko.

1981EKO ERROLDAREN DATUAN

Euskaldunen kopurua (ondo edo zer edo zer dakitenak) 12.806 biztanle dira eta erdaldunena (13.403) biztanle.

2012. ZENBAT EUSKALDUN GAREN.

2012ko berria 2012an %56 euskaldun, ia euskaldunak %18 eta erdaldunak %26. Erabilera %34.

JARDUERA 1.- 2025ean. Zein berri emango zenuke euskararen inguruan .

Euskararen kronika honetan, lauhun baino gehiagoko antzintasuna dituzten historiak daude eta berri horietan nolabait euskarak bizi izan duen egoera antzematen da eta herritarrek egindako ahalegina k eta jasotako zigorrak agertzen dira.

Iraganeko informazio honekin eta gaur daukazuarekin, zein berri emango zenuke euskararen gainean 2025ean?

Koadernoko 18. orrian.



18.- ZENBAT GARA? ZENBAT ERABILTZEN DUGU?

Euskararen kronikaren bidez ezagutu dugu euskararen egoera azkeneko mendeetan. Jauzi handi bat eman dugu eta ikasleari galdetu diogu 12 urte barru irudikatzea zein berri emango lukeen euskararen inguruan. Baina zein da egun, euskararen egoera Arrasaten?

Gaurko euskararen egoeraren berri jakiteko, datuak beharrezkoak dira. Ikuspegi hori laguntzeko, koadro honetan aurkezten ditugu hainbat urteotako euskara eta gazteleraren gaineko gaitasunaren inguruan egindako neurketak.

2006. urteko datuak dira jarri ditugu azkenak, baina 2012ko datuak "euskararen kronikan" jakin ditugu. Bi zutabe horietan ikasleak idatzi ditzakete datuok eta horrela bilakaera ikusiko dute. 2013koak izanez gero, jartzea proposatzen dizuegu.

Gero, "Euskararen kronikan" agertzen dira 1981. urteko datuak, haiekin erkatzea proposatzen dugu, azkeneko 30 urteotako bilakaera ikusteko.

	1986		2001		2006		Kop.	%
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%		
Elebidunak	10.961	%42'64	12.660	%55'86	11.676	%54'67		
Elebidun hartzaileak	3.979	%15'48	4.001	%17'65	4.113	%19'26		
Erdaldun elebakarrak	10.766	%41'88	6.003	%26'49	5.570	%26'08		
	25.706		22.664		21.359			

Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritza

Ezagutzarekin batera hizkuntza bateko osasuna neurtzeko, **erabilera** da faktore garrantzitsua. Biztanleriaren adina kontuan harturik arloka azaltzen du koadroak, hurrek, gazteek, helduek adinekoen zenbat erabiltzen duten hizkuntza. Beste faktore garrantzitsu bat izango litzateke herriko auzoetako erabilera, Arrasate herria luzea delako eta auzo bizimodua egiten duelako.

Data hauek ikasleekin partekatu eta gero, hainbat galdera egin diezaiekegu ikasleei: erabilera altuen eta bajuen zein auzotan izan daitezke? landa auzoetan: Gesalibarren, Garagartzan, Udalan, Bedoñan edo kale auzoetan: San Andresen, Uribarrin, Erdialdean, Musakolan, Zaldibarren... Eta ezagutza non?



*Euskararen kale erabileraren bilakaera Arrasaten (1988-2011)

Aldia	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Guztira
1988-1990	%23	%12	%11	%25	%14
1991-1995	%36	%19	%17	%27	%22
2001-2005	%46	%41	%28	%25	%31
2006-2010	%48	%36	%32	%25	%32
2011	%49	%47	%33	%23	%34

Iturria: Arrasateko Udalak 2006-2010 aldian egindako neurketetako datuak erabili ditugu Kale Erabileraren adierazle moduan eta Soziolinguistika Klusterrak 2011n egindako Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketan Arrasaten jasotako datuak. Datuak %tan daude. Haurrak: 2-14 urte Gazteak: 15-24 urte Helduak: 25-64 urte Adinekoak: 65 urte edo gehiago

Azkeneko 24 urteetan euskararen erabileraren bilakaera positiboa izan da, gero eta gehiago erabiltzen baita euskara, aldi horretan %14tik %34ra pasatu da eta. Arrasateko kaleko neurketak hartzen baditugu, konturatuko gara orain dela urte asko pertsona nagusiak zirela euskaraz gehien egiten zutenak eta gazteak gutxien egiten zutenak. Eraitza horiek galbidean zegoen hizkuntza bat erakusten zuten.

Arrasaten, positiboa izan da kale erabileraren bilakaera 1988-2011 aldian. Haurrek eta gazteek erabiltzen dute gehien euskara kalean eta hezkuntza sistemak egindako lanari esker eta familia bidezko euskararen transmisioari esker.

Aldiz, kezkarria da gazteen erabilerak 2006-2010 aldian izandako beheranzko joera eta etorkizunari begira ematen du kale erabilerak hazkunde motela izan lezakeela aurrerantzean.

19.- LANDA LANA. NON EGITEN DA EUSKARAZ?.

Egun, gure eskolako ikasle guztiek dakite ondo, baina eskolako tokietan ez dute erabiltzen. Hori eskolan ematen bada, zein da egoera eskolatik kanpo? Horretarako ikastetxeetatik kanpo dabilzan tokietan, zenbat lekutan eta zenbatek dakiten aztertu beharko dute. Sei toki aukeratu behar dute, dendetan, Kulturaten, kiroldegian,Denon artean osatuko dugu zerrenda eta baita lan harremana izango dugun pertsona ere. Gero, ikasleen artean boluntarioak eskatu ditzakegu azterketa egiteko.

Ikasle boluntario horiek hurrengo bi asteetan hautaturiko lekuetako pertsona horiekin euskarazko elkarrizketa bat sortzen saiatu beharko dute. Saiakera bakoitzean honakoa apuntatu behar dute: **nork erantzun dien euskaraz, nork gaztelaniaz, baina galdetutako ulertuz eta nork eskatu dien gaztelaniaz egiteko.**



JARDUERA 1.- Ezagutza eta erabileran artean tarte handia dago eta horretan datza hizkuntza baten bizitasuna. Non egiten da euskaraz? Landa lana egingo dugu . Datu hobeak ala txarragoak espero zenituzten?

*Jasotako datuak ipini taularen ezkerreko lau zutabeetan eta sakondu daiteke ikasleekin horren inguruan. Batzuek, euskaldunak izanik, gaztelaniaz erantzuten baitute. Zer dela eta, jarrera hori, zerk bultzatzen gaitu gaztelania erabiltzera?

Koadernoko 19. orrian.

20.- LANDA LANA. HERRIKO EUSKARAREN PAISAIAN MURGILDU.

Landa lana horrekin jarraitzeko gure kaleetan euskararen presentzia zenbatekoa den saiatuko gara jasotzen.

Ikasleak launako taldeetan bana ditzakegu eta talde bakoitzari bi herriko eta auzoko txoko aztertzea aukeratu eta aztertzeko eskatuko diegu. Argazki kameraren bidez argazkiak atera beharko dizkiote kalean ikusten den idatzizko paisaiari: dendetako errotuluak, kartelak, trafiko seinaleak, eraikuntzen izenak...Talde bakoitzari 20 argazki ateratzea eskatuko diegu eta gero proiektu baten bidez gelakideei aurkeztuko dizkie argazkiak.

Proiektzioa ematen ari diren bitartean irakasleek galdetuko die ea zerk harritu dituen gehien, zertaz ez zarete inoiz konturatu? Zein aldaketa egingo zuten paisaia horretan?. Gero, unitate didaktikoaren behaldez aukeratu gehien harritu zaituen argazkia eta azaldu zergatik aukeratu duzun eta itsatsi alboan.

Koadernoko 19. orria.

21.- LANDA LANA. GURE ETXEETAKO HIZKUNTZA OHITURAK.

Ikastetxea, herria, auzoarekin landa lana egin dugu aztertzeko, baina zer gertatzen da **gure etxeetan**? Zein hizkuntza erabiltzen dugu? Zeintzuk dira familian ditugun hizkuntza ohiturak?

Proposatzen dugun jarduera da etxeetako hizkuntza ohiturak neurtzeko eta horretarako eranskinean dagoen **inkesta dokumentua** erabiliko dugu eta ikasleei eskatuko diegu betetzeko.

Behin ikasle bakoitzak inkesta betetakoan, gainerako ikasleek egindakoekin bateratzeko lanaren unea izango da.

Inkestaren emaitzak unitate didaktikoan dauden islatu ditzakete ikasleek, aitarekin eta amarekin erabiltzen duten hizkuntzaren arabera.



Neskak eta mutilek gurasoekin zein hizkuntzatan hitz egiten duten zehaztutakoan, beste bi aldagai garrantzitsu aztertzen saiatuko gara, familiako hizkuntza ohiturak aztertzeko: **nebarreben artekoa eta gurasoen artekoa.**

Bukatzeko, datuak genero ikuspegitik aztertzea proposatu diezaiekegu ikasleei. Neskek ala mutilek erabiltzen dute gehien euskara familian?

Koadernoko 19. orria

22.- EKIN ETA EKIN....EUSKARA, GEUREA.

Arrasatek historia luzea du euskararen errekueratzearekin eta ahalegin historiko horren hainbat adibide ditugu:

a)*EUSKAL FESTAK/LORE JOKOAK. Antoine de Abbadik 1851. urtean lehendabiziko aldiz antolatu zituen lehenengo euskal jaiak eta 1851 zein 1852. urteetan euskal pilota sustatzeko bereziki antolatu ziren.

Olerki lehiaketa sonatua egitea erantsi zioten 1853. urtean pilota jokia sustatzeari, eta ordutik lore joko bilakatu ziren Abbadiren festak, lehendabiziko jaiak urte hartan Urruñan egin zituen. Geroago berriro Urruñan (1863. urtean), Saran (1863-1876), Donapaleun (1877), Elizondo (1879), Bera (1880...)

Jai haien formatua hauxe izaten zen:

- Txistularien diana
- Meza nagusia agintariekin.
- Pilota partiduak, "herri bazkaria", bertsolariak, kirol jokoak, abeltzaintza eta nekazaritza lehiaketak eta literatura zein musika lehiaketak.
- Irabazleek urrezko ontza eta zilarrez estalitako makila jasotzen zuten.

***Gipuzkoako diputazioak** jai hauen helburuak eta arrakasta ikusita, ekimen horietan oinarritu zen Gipuzkoako 18 herritan lehendabiziko euskara jaiak antolatzeko.

- **Lehenak Arrasaten izan ziren, 1896ko uztailaren 4, 5, 6 eta 7an.** Antonio Arzacek hitzaldia eman zuen euskaraz. Saridunak Pedro M. Otaño, Felipe Arrese, Francisco Alen, Domingo Agirre eta Jose Artola izan ziren.
- **Gipuzkoan XIX. eta XX. mendeetan egin ziren lehendabiziko jaiak herri hauetan izan ziren:**

1896	Arrasate	1905	Bergara
1897	Oiartzun	1906	Donostia
1898	Zestoa	1907	Elgoibar
1899	Zumarraga	1908	Eibar
1900	Zumaia	1909	Hernani
1901	Azpeitia	1910	Azkoitia
1902	Oñati	1911	Segura



1903	Irun	1912	Zarautz
1904	Ordizia	1913	Tolosa

Donostiako Sociedad Coraleko hogei kantari, trenez eta diligentziaz etorri ziren jai horietara kantatzera. Abeslari haiek, beste batzuekin batera, ORFEOI DONOSTIARRA sortu zuten 1897ko urtarrilaren 21ean.

Euskal –Erria izeneko aldizkariak 1896ko uztailaren 10eko alean jaso zituen “Mondragoeko euskal festak-Euskal-itz-jostaldien egintza-ri buruzko xehetasunak lau eguneko egitarauaren berri emanez:

Uztailaren 4an iritsi ziren Arrasatera Diozesiko gotzaina eta diputatuak. Ezkilak jo zituzten eta txapligu ugari bota zuten. Arrasateko Tiburcio Zatarain bikario-artzipreosteak eta Udaleko zinegotzi guztiek harrera egin zieten herriaren sarreran. Arratsaldeko 7:30ean parrokiara zuzendu ziren egitaraua iragarrita zegoen Salbe solemnera. Azpeitiko musika eta kapera orkestrak Eleizgaray jaunaren zuzendaritzapean jo zuen eslavaren Salbea re menorrean.

Uztailaren 5ean goizeko 10:00etan erlijio zerbitzu solemnea egin zuten elizan eta bertara, eliztarrekin batera, gotzaina, zinegotziak, diputatuak eta gonbidatuak joan ziren. Prelatua “Medio Pontifical” moduan aritu zen eta meza Vidaurre apaizak eman zuen. Parrokiaren Balerdi organo joleak eginiko meza orkestra handian kantatu zen. Pulpitura sermoia ematera Jesuiten konpainiako Jose Vinuesa aitak igo zuen. Sermoian Diputazioek bere administratuen ongizatearen inguruan zein lan egiten duen aipatzen zuen, eta aipatu zituen Nazioaren ohiturak eta erabilerak zein harekiko maitasuna.

Diskurtsoan aipatu zuen gure nazioan arazo soziala egotearen ezintasuna ikusarazi zuen, batetik, ugazaben eta langileen artean- jabedunak eta kolonoak- dagoen batasun erlijiosoa eta, bestetik, langileen klaseak duen sinesmen erlijiosarengatik.

Horrekin batera aipatu zuen sinesmen horri esker probintzia hauetan eramangarriak zirela nekazarien eta marinelen lan gogorrak, eta gomendatu zuen denon batasuna, Katolizismoa eta Euskarismoaren babesean, alde batera utziz euskaldunen artean ezinegonak sortzen zituzten gai politikoak.

Bukatzeko, diskurtsoan tarte bat eskaini zion Kubako gerrari, eta esan zuen, “Espainiako seme-alaba fidelak garen neurrian, oparotasunean bezala, ezbeharrean dagoenean lagundu behar zaiola, orain bezala aberriaren alde bere odola ematen ari den milaka soldadurekin gertatzen den bezala”.

Erlijio zerbitzua bukatutakoan, Udaletxera abiatu ziren bazkaltzera, non Diputazioko burua Ramon Maria de Lilik esker hitzak bota zituen bazkaldar guztientzat.

Geroago, Euskal-erria aldizkariaren zuzendaria Antonio Arzacek euskaraz.



Arratsaldeko 4:30etan herriko plazan gazte batzuk esku-dantza dantzatu zuten. Geroago, danbolin joleen lehiaketa izan zen. Lehiaketa hartara Zumarragako eta Arrasateko bandak aurkeztu ziren. Arrasatekoak irabazi zuen eta besteak "acesita" lortu zuen. Banda bakoitzak berak nahi eran aukeratutako pieza bat jo behar zuen eta beste pieza zen Julian Martinez Villar bilbotar musikariaren Udalak saritutako zortzikoa.

Gauean, Venezia erara argizatuta zegoen Zaldibarko etorbidea.

Uztailaren 6an, goizeko 10etan hainbat haurrek auresku bat dantzatu zuten eta gero, Arrasateko gazte batzuk ezpata-dantza eta makila dantza. Herriko Rafael Agirrek prestatu zituen zezen plazan aureskua dantzatu zuten umeak eta oso ondo dantzatu omen zuten.

Arratsaldeko 5etan udaletxeko pleno aretoan (kapitulu gela) sariak banatu zitzaizkien lore jokoan irabazleei, eta bi irabazleek, Agirrek eta Arrese y Beitiak, lanak irakurri zituzten eta ekitaldiaren bukaeran Arzacek berriro irakurri zuen diskurtsoa, eta Ignacio de Lardizabal diputatu probintzialak sariak, diplomak eta orri inpresok banatu zituen.

Gero, plazan J.M. Unceta y Urkijo eta Felix de Urtubi zaldun beteranoek aureskua eta atzeskua dantzatu zuten. Uncetaren bikotea bere emaztea zen eta bestearena Vicente de Monzon diputatuaren emaztea. Eta besteak Lardizabal, Larrañaga, Egaña eta probintziako beste andere batzuk ziren.

Zortziko soka horren barruan egon ziren, aipatutako pertsona horiez gain, Lardizabalen semea, Esteban Gomendio, Acilona, Muruako markesa, Bergarako alkatea (markesaren anaia) Villafranca kondearen seme bat eta Elozegi eta Monzon diputatu probintzialak.

Gizonek kaltrajea janzten zuten txapela urdinarekin eta jakaren botoi zuloan haritz sortatxo bat zeramaten. Emakumeek berdina zeramaten.

Egitarauarekin jarraituz, bertsolariak izan ziren osoko bilkuraren aretoan. Epaimahaikoek hiru zaharrenak saritu zituzten, eta Elgetako artzain gazte bat ere bai, arituz gero, epaimahaikoen iritziz, bertsolari onenetarikoa izatera iritsiko baitzen.

Gauean, su artifizialen bilduma bat erre zuten, Gasteizko enpresa pirotekniko batek eginikoa, hain zuzen ere, eta pleno aretoan "euskaldun fedea antzerki talde dramatikoak antzestu zituen "Alkate berriya, Abek istillubak eta Aritzaren zumo gozua" jostailuak-obrak-tarte batean udaleko bandak " Gernikako arbola" jo zuen eta kanta hainbat bider kantatu eta txalotu zuten.

Uztailaren 7an goizean umeek aureskua dantzatu zuten.

Arratsaldeko seietan nekazaritza eta abeltzaintza lehiaketen sariak banatu ziren. Euskaraz Carmelo de Etxegaayek hitz egin zuen, eta bitartean, Gotzainak saridunei sariak banatu zizkien.



Oso eszena bitxiak gertatu ziren, nekazariak ez baitzekiten nola azaldu euren poza eta saria jaso ahala gurtze eta belaunikatze ugari egiten zituzten gotzainaren aurrean. Baten batek Gotzaina bedeinkatu zuen.

Jarraian Orfeoi Donostiarrak kanta batzuk eskaini zituen.

Gauean, diputatuak zeuden Otorako bainuetxera joan ziren orfeoikoak, serenata bat ematera, eta beste kanta batzuen artean, Gernikako Arbola.

Bainuetxekoek abeslariari kafea, likoreak, pastak eta puruak eman zizkieten jantokian, eta gero, Jose Zapirain eta Pedro Mari Otaño bertsolariak aritu ziren.

Euskal-erriak aldizkariak kontatzen duenaren arabera, euskal festa haien alderdirik onena izan zen anaitasun eta armonia zintzoa eta tradizionala, jende asko izan zela, bero handia egin zuela, hostaletan deserosotasunak izan arren, ez zela izan gatazkarik eta enfrentamendurik. Hori kontsolagarri da, gaurko euskaldunen izpiritua beren gurasoek zeukatena bezalakoa zela erakusten baitute.

¡Bizi gaitezen beti euskaldunak gure ohitura onekin! (¡ Bizi gaitezen beti euskaldunak gure oitura onekin!

Lore jokoen (Euskal itz jostaldien egintza) irabazleak hauek izan ziren:

Pedro Maria Otaño ("Aitona Gizagaisoa"); Francisco Lopez Alen " Illunabar bat"; Domingo Agirre "Agure kanta", Jose Artola " oroitza"; Felipe Arrese y Beitia "uri kondaira andiko bat" . Musikarien artean sariya irabazi zuen on Julian Martinez Billakoak Nire Euskal –errira azalkaitzat daukan zortzikoagatik. Irabazi zituzten aldeerak on Migel Oñate eta On Marzelino Galatasek, Erresil eta Zezen yayua izeneko zortzikoagatik

b) *EUSKALTZALEAK - Accion Popular vasca. Jatorria 1926ko urtean du, Elgoibarko euskaltzale batzuk San Lorenzo auzoan euskal jai bat antolatu zuten. Egitaraua baselizan, meza bat, irakurketa eta idazketa ariketa batzuk egin zituzten euskaraz, Miren S. de Legarazak andereñoaren kontura, ezpata dantza erakustaldia eta bertsolarien ekitaldi bat. Urte bat geroago, antolatzaile berberak, Angel Osorok prestatu zuen hori bezalako ekitaldia Mutrikun. Festa haietatik euskera mugimendu bat sortu zen, baina Euskaltzale haien lehendabiziko ekitaldi antolatua Arrasaten izan zen, 1927ko irailaren 4an, "Euskeraren eguna" ospatzearekin batera gertatu zen.

Oihartzun handiko eguna izan zen; aldizkari, astekari ugari joan ziren: Argia, Jaungokozale, Jesusen Biotzaren Deya, Zeruko Argia eta Txistu. Esan daiteke egun hartan sortu zela, elkartearen oinarriak jarri zituztelako. 500 bazkaldar baino gehiago joan zen ekitaldira. Felix Ugalde ekitaldiaren antolatzaile batek euskarazko liburuak jarri zituen saltzeko. Arratsaldean, Txanton Piperrri operaren funtzio bat eman zuten eta arrasatear batzuek hainbat kantu kantatu zuten.



1930. urtean inprimatutako liburuxka batean elkartearen helburuak, antolakuntza eta programa atera zituzten. Sociedad de Estudios Vascos-en filial gisa onartu zuten eta alderdi politikoekin loturarik ez izatea adierazi zuten. Helbide soziala Gipuzkoako Diputazioaren jauregian izan zuten. Tokiko ligen eta Ekintza zein ikaskuntza Zirkuluen bidez antolatu zen eta denek lotura Donostian bi hilabetez behin biltzen zen Kontseilu goren baten menpean zen.

Idazkaritza orokor batek eragiletza eramaten zuten eta antolakuntza hark sekulako arrakasta ekarri zion elkarteari.

“**Eukal egunak**” sortu zituen, lehena Arrasaten, 1927an, Zumarragan (1928an), han Kirikiño literatur saria sortu zen, Andoainen (1929), aita Larramendiri omenaldia egin zioten, Bergaran (1930), V. Euskal Ikasketen Kongresua egin zuten. “**Euskaltzaleak**” elkarteak ere **Euskaldun ume egunak** sortu zituen eta lehendabiziko edizioak Andoainen (1929), Seguran (1930), Elizondon (1932) eta Zarautzen (1934). Era berean, **Euskal Olerkiaren egunak** sortu zituen: Errenterian (1930), Tolosan (1931), Hernanin (1932), Urretxun (1933), Zarautzen (1934), Aretxabaletan (Gaur egun, Arrasatekoa den Bedoña auzoan - 1935) eta Lekeition (1936).

Euskal antzerkien egunak sortu zituen Donostian (1934, 1935 eta 1936) eta euskal eleberriaren egunak urtero egiteko asmoa zuten, eta eguna jarrita zuten horretarako, 1936ko urriaren 1a, baina 1936ko gerraren hasi zenez, bertan behera gelditu ziren ideia haiek.

“Euskaltzaleak” taldea sortu zen 1927ko irailaren 4an, eta lehendabiziko “euskeraren eguna” antolatu zuten. Helburu zuten Euskal prentsa sustatu eta euskal literatura bultzatzea. Aitzol eta Lizardi izan ziren sustatzailerik nagusienak. Esan genezake Elkartearen kontsolidazioa Zumaian gertatu zela 1930eko martxoaren 9an, elkartearen antolakuntza proposamena iraunkorra egin baitzuten, Egun bakoitzeko zentimo bateko kuota finkatu zuten, 3´65 PTA urtean . Handik gutxira 100 bazkide izatetik 2.000 bazkide izatera pasatu ziren.

Jose Maria Agirre “Lizardi”k elkarteari emandako egitura eta xedeak azaltzen dituen hainbat idatzi eta artikulu gelditu dira lekukotzat, eta adierazgarrienak Zumaia eta Arrasteko bileretarako prestatu zituen hitzaldietan ditugu. 1930eko bi hitzaldi horietan aurreko urteetan egindako lanak aztertu eta geroari begira elkartearen helburuak ezarri zituen. Gida pedagogiko horren eranskinean jasota dator 1930eko uztailaren 30ean Arrasaten emandako hitzaldia. (HUHEZIKO *Julen Arexolaleibak egokitua*)1996ko azaroaren 15ean, Lizardiren erakusketaren inaugurazio ekitaldian, San Viator ikastetxeko lau haurrek irakurria)

c)***Jokin Zaitegi Plazaola** (1906-1979). Arrasaten jaioa 1906ko uztailaren 26an, Jesusen Lagundian sartu zen 14 urterekin eta Loiolan izan zen. Euskara sustatzeko helburuarekin, latin eta grezierazko idazle klasikoen lanak euskaratzeari ekin zion, Sofoklesen bi lan hartu eta bi liburu mardul argitaratu: “Sofoklesen antzerkiak I eta II”.

Loiolatik Oñako (Burgos) santutegira joan zen 1926an, eta handik Venezuelara bidali zuten. Geroztik, urte ugari eman zuten Euskal Herritik urrun: Belgika, Venezuela, Mexiko, Panama, Guatemala, baina sekula ez zuten utzi euskara bazterrean.



Eusko Olerti Eguneke lehen saria irabazi zuen 1934an "Tori nire edontzia" izeneko poemarekin. Erdialdeko Amerikara bidali zuten berriro 1938an eta Jesusen Lagundiak euskara kulturarekin zeukan jarrera dela-eta, 1944an utzi egin zuen konpainia eta Guatemalara joan zen eta 1946an "Goldaketan" poema liburua argitaratu zuen. Gustukoa zuen antzinako greziarren mundura itzultzea eta Platonen, Euripidesen ...itzultzaile trebea izan zen.

Guatemalan, 1950ean, "Euzko Gogoa" aldizkaria sortu zuen, gerra osteko lehen euskarazko argitalpena.

d) Ikastola. Abadetxean/ Maalako errebaletan, 1. ikastola (kristaua) sortu zen 1932an. San Frantzisko Xabier ikastola 1967an.

e) Kooperatibak. 1956an sortu zen 1. kooperatiba, 1963an talde batzuk eskatu zuten euskara erabiltzea, zabaltzea eta ikastea lantegietan. Lehenengo taldeak 1977an hasi ziren ikasten euskara.

f) Gau eskolak. Euskaltzaindiaren babesean euskara ikasteko gau eskolak sortu ziren 1965ean Euskal Herrian eta Arrasaten. Eskola haietatik, geroago, **AEK** sortu zen.

***AEK** (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea) Helduen euskalduntze alfabetatzean aritzen den elkarterik garrantzitsuena dugu eta, Euskal Herri osoan lan egiten duen bakarra. Bi urterik behin, AEK-k Korrika antolatzen du, euskararen aldeko ekitaldirik garrantzitsuena. **Erdu AEK** da Arrasateko AEKko euskaltegiaren izena.

Euskara praktikoa, **euskara ikastaroak** eskaintzen ditu **maila guztietan**: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2.

Titulu homologatuak lortzeko azterketak prestatzen ditu, HABErenak, Hizkuntz-Eskakizunenak eta EGAkoak. **Taldeentzako ikastaroak eta autoikaskuntza** ditu zerbitzu.

g) Danok elkartea: Euskal Herrian "Ez dok hamahiru" sortu berria zen eta euskal kanta berria berpizten ari zen. Euskal Herrian hainbat jaialditan. Frankismo aroak zapalduetako euskal kultura suspertzeko ahalegin kolektibo horretan kokatzen da. Danok elkarteak Arrasaten Lehendabiziko "festival de la cancion moderna vasca" "kanta berri" antolatu zuen 1971n.

23.- EKIN ETA EKIN... EUSKARA GEUREA. EUSKALDUNEN BILGUNEAK

Arrasatearrek euskararen berreskurapen eta erabilera sustatzeko ahalegin handia egiten dihardute eta elkarte asko sortu dituzte horretarako. Eta udalak ere paper garrantzitsua jokatu du berreskuratze eta normalizazio lan eskerge horretan.



Herrian erdaldunen kopura euskaldunena baino handiagoa zen 1981ko erroldan. Kinka larrian izan zen euskara herrian eta hainbat erakundek egiten duten lanari esker euskarak jarraitzen du osansutsu mantentzen eta arlo berriak lantzen.

Hona hemen, aipamen gisa, herrian euskararen etengabeko sustatze horretan lan egiten duten hainbat elkarte:

AED. Euskararen zein euskal kulturaren normalizazioa lortzeko helburuarekin, 1983an Euskal Herriko lehen euskara elkarte sortu zen. Hainbat arlotan lan egiten dihardu: kultura, literatura lehiaketa, sentsibilizazio arloa, euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena, euskalduntzea, zahar berri proiektua, TTAk gazte taldea...

Txatxilipurdi. 1988an AEDeko haur sailetik sortutako euskara elkarte, haur eta gazteek euskaraz bizi, gozatu eta jolasteko helburuarekin. Egun, bere jarduera, ludoteketan, gazte txokoetan, udalekuetan, Txikilandian, jaietan garatzen du. Guraso.com web orria kudeatzen du.

Ekin 1995ean, AEDtik erakundetuta. Emakumeen euskara elkarte abian jarri zen. Gaur egun, martxan du harrera proiektua, beste herri batzuetatik etorri diren pertsoneri informatu, hezi eta laguntzeko.

Euskalan. AEDetik sortutako taldea da, 1987az geroztik "Euskaraz dakixenak ein deixela" kanpainaren bidez ezagutzera eman zen, Arrasateko lantokietan euskararekiko plangintza abiarazteko asmoz.

Goiena aldizkaria/telebista/irratia.

Arrasate Press euskarazko herri astekariak 1988an sortu zen. Arrasate Telebista 1990 euskaraz. ARCOk kudeatu zituen. 2000an Goiena enpresak Goienkaria (Debagoieneko astekaria) egun-Goienkaria eta Goiena (Debagoieneko telebista) sortu zen. Irratia (udaleko lizentziarekin) bere ardurapean dago. Gaztetxeak Itxungi irratia du.

Euskal Herrian euskaraz. Euskalduntzearen aldeko sentsibilizazioa sustatu, euskararen defentsan aritu eta euskaraz bizitzeko grina sortzea du helburu.

Badihardugu. Deba ibarreko euskara eta euskalkia helburu izanik, hainbat proiektu ("Ahotsak", "berbeta berue" "aditzak" " hiztegia".. lantzen dihardu. "Ahotsak" proiektua maila nazionalen hasi du lantzen eta zabaltzen.

Emun. Lan mundua euskalduntzeko hizkuntza zerbitzuak ematen dituen enpresa da, 1997an. Hasieran lantegietan euskara eskolak emateko jarduera egiten hasi bazen ere, gaur egun, bere jarduna dibertsifikatu egin du eta hizkuntza zerbitzuak (Euskara planak, herrietako planak, formazioa, itzulpenak..), prestakuntza, kultura zerbitzuak, immigrazio zerbitzuak eta parte hartze prozesuak garatzen ditu.



Arrasateko Udala. Udalak, erakunde bezala, bere sailen bidez eta, batez ere, **Euskara sailaren bidez**, udalerraren hizkuntza normalizazioan garrantzi handia izan du, udal mailako hizkuntza politika egituratzeko. Udalaren hizkuntza politikak eredu eta eragile izan du udalerriko sektore guztientzat.

Hainbat proiektu antolatu eta babesten ditu: euskalduntzea-prestakuntza, familia transmisioa, teknologia berri, kirola, administrazioa, aisia, komunikabide eta kultur gintza arloro bideratutakoak.

1990ean Udalaren eta AEDren ekimenez Arrasateko 38 elkartek eta enpresek "euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena sinatu zuten. Gaurko egunean, 120 elkarte baino gehiago dira."GU BE BAI" izena du.

Oro har, hauek dira **Udalaren Euskara sailak** dituen helburuak:

Udal administrazioan euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko egitasmoa prestatzea eta kudeatzea.

- Arrasaten euskararen erabilera sustatzea, herriko elkarte, eskola eta entitateekin elkarlanean.
- Arrasateko euskara (korpusa, leku izenak, gaitzizenak...) aztertu eta normalizatzea.
- Arrasateko helduen euskalduntze-alfabetatzea sustatzea.
- Arrasateko hedabideetan euskararen erabilera sustatzea.
- Arrasateko elkarten eta, oro har, entitateen hizkuntza normalizazioa sustatzea.

2012ko abenduan Udala, **Euskara sailaren bidez**, "**Elkarlan**" izeneko hitzarmena sinatu zuen herriko hainbat euskara eragilerekin, hitzarmen honen helburu nagusia ondokoa izanik:

"Euskara biziberritzeko ahaleginei, Udalarenak eta herritarrenak, al bait etekinik handiena ateratzea; legealdi-etenak saihestuz eta indarrak, jarduerak eta proiektuak lerrotuz eta integratuz".

***Udal EUSKALTEGIA:** Arrasateko udal Euskaltegiak 1980eko hamarkadaren hasieran sortu zen, bizilagun helduak alfabetatu eta euskalduntzeko helburuarekin sortu zen.

Euskara praktikoa, **euskara ikastaroak** eskaintzen ditu **maila guztietan**: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2.

Titulu homologatuak lortzeko azterketak prestatzen ditu, HABErenak, Hizkuntz-Eskakizunenak eta EGAkoak. Horretaz gain, **Arrasateko euskalkiari eta bertako hikari buruzko** hainbat ikastaro antolatu ditu.



JARDUERA 1.- Elkarte asko eta Udala lan handia egiten ari dira ezagutza eta erabilera sustatzeko, baina zuk ba al daukazu proposamenen bat edo arlo berriren bat ekintzak proposatzeko? Hausnartu eta zehaztu zein izango zen.

Koadernoko 20. orrian

24.- EKIN ETA EKIN EUSKARA, GEUREA...BERE GOZOTASUNEAN

a) Euskalkia

Eskolan euskara batua ikasten dugu, baina etxean edo herrian gure euskalkia ere erabiltzen dugu. Gozoa da entzuteko eta euskalkian jakitea eta erabiltzea bultzatu beharko genuke, irauin dezan.

Euskara batuak normalizaziorako sekulako garrantzia izan du, baina bertako herri hizkera (euskalkia) aditu batzuen ustez galtzen ari dela-eta, kezkatu agertzen dira. Haien ustez, batuaren eta euskalkiaren arteko nolabaiteko hibridoa nagusitzen ari baita belaunaldi berrien artean, eta altxor hori galtzeak euskara pobretuko dutela azaltzen dute.

Euskalkiei esker, gurasoen eta seme-alaben arteko transmisioa egin zen eta egiten da, eta egun, euskararen normalizazioan, euskalkiaren eginkizuna euskara batuaren osagarri moduan onartzen da, eta zenbait ahalegin egiten ari dira irakaskuntzan, tokia izan dezan, (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzako lehen kurtsoetan...); komunikazioan euskalkiaren ahozkotatasuna ikasteko. **Euskara batua indartu den bezala, hizkuntza osatzen duten gainerako euskalkiak, herri hizkerak indartu behar ditugu, haur hizkerak, gazte hizkera eta lagunartekoa, eta lanbideetako hizkerak edo argotak.**

Euskalkiak bere tokia topatu behar du hizkuntza jendartean, familian, eskolan, lagunartean, aisian, teknologia berrietan, komunikazioan...

Euskaltzaindiak euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aipatzen ditu hizkuntzaren zutabe bezala. Komunikatzea hizkuntzen oinarritzko zeregina denez, hizkuntzak gozatzeko eta gustura egoteko dira eta euskalkia da hizkuntzarekin jolasteko eta gozatzeko aukera ematen duena.

Azkeneko urteotan **Badihardugu eta AED elkarteek** Udalaren laguntzarekin **“Ahotsak”** proiektuaren barruan dihardute **Arrasateko euskara** eta ohiturak biltzen eta horretarako adineko jendeari hamaika grabazio eta bideo egin zaizkie helburu horrekin. Proiektu honen web orria www.ahotsak.com/arrasate da.

JARDUERA 1.- Azkeneko bi urteotan Udalak, AEDk eta Txatxilipurdik egindako eskola agendaren bidez, hemengo bertako euskalkiaren hitzak lantzen ari dira, ikasleek ikasi eta erabili ditzaten. Unitatean, koadroaren ezkerreko zutabearen bertako euskalkian hainbat berba agertzen dira eta eskuman berba horien sinonimoa edo euskara batuko erreferentziak jarri behar dira.

Koadernoko 21. orrian



b) Gazteen hizkera

Gazteen hizkerari buruz hainbat adituk zera diote:

“Gazteek erabiltzen duten euskara arruntean, euskara eta gaztelania nahasten dituzte. Euskarazko zatietan batua eta euskalkia nahasten dituzte. Herri bakoitzean, forma berriak sortzen dira, hitzetan eta aditzetan.

Gazteek adierazkortasuna nahi dute hitz egiteko eta gaztelaniaz baliatzen dira, sarri, horretarako, euskaraz horretarako esamoldeak baldin badaude ere.”

Unitate didaktikoan ere hainbat adituen iritzia jaso dugu gazte hizkeraren inguruan eta nolabait hor agertzen dira iritzi ezkorrak diren arren, beste batzuk baikor dira gazteen hizkeraren ekarpenarekin. Duela 40 urte uste zuten haurrek eskolan euskaraz ikasten bazuten, gero erabili egingo zutela”. Baina egun, sarri bakarrik ikasgelan erabiltzen dute eta batzuek hor ere ez. Hori dela-eta, **sarri esaten dugu “gazte horien hizkuntza maila ez dela nahikoa”, “adierazkortasun arazoak”, “ez direla hiztun onak eta “euskañola” darabiltela”...**

Aditu askok esaten dute gazte hizkeraz baino gehiago hizkerez hitz egin beharko genukeela, gazte hizkerak beti egon dira, baina inoiz ez oraingo dimentsioan. Besteak beste, tokian tokiko egoera soziolinguistikoen aniztasunak, euskalkiek, harreman sareek eta ideologia linguistikoak. Idazkerari dagokionez, XXI. mendeak ekarri du iraultza, telefono mugikorren zabalkundearekin.

Gaur egungo gazte hizkera horien ezaugarriak hauek dira: “Aniztunak, nahasiak, adierazkorrak, berritzaileak, urratzaileak eta nortasuna emaileak izaten dira eta jarrera kontrajarriak eragin dituzte”. Batzuek hizkuntzaren kontrako “atentatutzat” jotzen dute, baina adituen esanetan, garatu ez dugun argota bilatzen dute gazteek eta haien hizkeretan ematen diren zenbait molde alde horretatik begiratu beharko litzateke. Eta ildo beretik, euskalkiek gazte hizkeratan hartu duten garrantzia adierazkortasun horren bilakaeratzat hartu daiteke. Berez, urratze horiek “lasaitasunez” ulertu beharko lirateke, zeren, “ hiperzuentasunean” eroriz gero, euskarari eragingo ziola lau ataletan: fosilizazioa, degradazioa eta hibridazioa, txokokeria edo jatorrismoa eta urrunketa.”

Honekin batera, esatea euskararen kalitateaz arduratuta baldin bagaude, adituek diote hizkuntza irakasteko eta bultzatzeko orduan, **helburu komunikatiboari eman beharko geniokeela lehentasuna eta gutxiago zuentasun gramatikalaren aruari.”**

Euskalkia ere gazteen hizkera osagai garrantzitsu bat da, lagunartean dagoenean, gustura, hitzei bigarren adiera bat. Lagunarteko hizkera, jolasakoa dela hizkuntza sortzeko eta berritatzeko. Gazteek eskolatik kanpo euskaraz jardutea lortzen bada.

JARDUERA.-AEDk azkeneko urteotan “Saperokeriak”izeneko komikiarekin gazteen hizkera arloa lantzen ari da. Unitatean agertzen dira 7 gaztelaniazko esamolde eta euskaraz nolatan



esaten diren. Begiratu eta gero ariketa erraz bat egitea proposatzen du: launako taldetan ikasleak jarri eta talde bakoitzak gaztelaniazko esamolde pare bat topatu eta azaltzea. Gero euskaraz nola esango zuten azaldu behar dute, eta gero arbelean denon artean partekatzea.

c) Hika.

Herri oso euskaldunetan hikako tratamendua galtzen ari bada, Arrasaten azkarragoa da galtze prozesua. Ikerketarik ez badago ere, hiztunen kopurua beherantz doa, kalitatearekin batera, eta hitanoa erabiltzeko esparruak urritzen ari dira, batez ere, nesken/emakumezkoen hika formari dagokionez. Arrasaten, helduentzako ikastaraok **AED eta Udal euskaltegiak** antolatzen dihardute, baina eskolan, agian, oso gutxi lantzen ari da.

Hainbat herritan, hitanoa errekeratzeko, hezkuntza eta herri egitasmoak abian jartzen ari dira, helburu hauekin:

- Hitanoaren jakintza arauen berri jakin eta erabilera bultzatzea.
- Gazteen artean hitanoa sustatzea.
- Hitanoaren izateari eustea.
- Hitanoaren kalitatea bermatzea eta transmisioaren garrantziaz jabetzea.

Hizkuntza transmisioaren bidez jaso dugun altxor hau berpiztu, ezagutarazi, landu eta aberasteko ahaleginak egin beharko genituzke, gure esku dagoelako. **Ondo jak/jan.**

JARDUERA 2.-*Arrasateko hika hainbat arrazoiengatik galtzen ari da, zer egin beharko genuke, zure ustez, eskolan eta herrian hikako forma errekeratzeko?

Koadernoko 21. orrian

d) Informazio teknologia (berriak) eta hedabideak.

Azkeneko 20 urteetan, Internet-en agerpenarekin, informatikako eta sistema digitaleko tresnekin informazio eta komunikazio teknologia berriek urtetik urtera aldaketa izugarriak izan dituzte arlo honetan. Ordenagailuen sistemak, telefono mugikorak, SMSak (esamesak), posta elektronikoa, sare sozialak, tuenti, twiter, whatsapp, Facebook... tabletak, smartphone tresnak; geroago eta tresna sofistikatuagoak komunikatzeko. Euskara erabiltzea tresna guztietan eta hizkuntza ardatz bezala, etorkizuneko apustua da euskarak eta euskaldunek iraun dezaten. Norberak sortzeko aukera dauka eta bere inguruan fidelitate horrekin sarea egin.

Azkeneko urteotan gizartea nabarmen aldatu da, familiaren garrantzia ahuldu egin da eta hedabideena nabarmen hazi da. Ume edo gazte batek askoz ere denbora gehiago ematen du hedabideen aurrean eskolan baino. Hiztunen arteko komunikazioa aurrez aurrekoa izan liteke, baina beste medio batzuen bidezko komunikazioak (hedabideak, Internet...) garrantzi handiagoa hartu du. Hedabideen bidez, zer albiste dagoen dakigu, hedabideetan entzun edo irakurritakoaren gainean hitz egiten dugu, Interneten bidez komunikatzen gara lagunekin.



Hedabideak eta Internet gure bizitzaren zati garrantzitsu bihurtu da. Horregatik, euskarak etorkizunik izango badu, derrigorrezkoa da euskaldunok hiztun komunitate sendoa osatzea.

Horietaz gain, antzinako tresna elektronikoen ere oraindik sekulako indarra dute gurean, telebistak eta irratiak, hain zuzen. Irratiaren dialean euskarazko irrati gutxi, baina telebistaren kasua askoz ere larriagoa da, berrogeita hamar kateetatik aukera dugu bi edo hiru euskaraz jasotzeko, horrek guztiak, ikus-entzunezkoen arloan, sekulako basamortua sortzen du euskaldunen esparruan, eta diglosia handia ere bai.

JARDUERA 3.- ORDENAGAILUA.- POSTA ELEKTRONIKOA.-Euskarak, teknologia berriekin ere erabili egin behar ezinbestean. Euskara erabiltzen duzu teknologia horiekin? Zein tresnarekin eta nola?

Koadernoko 21. orrian

25.- EUSKARAREKIKO NIRE KONPROMISOA EUSKARA NOIZ ETA NOREKIN ERABILTZEN DUT

Hizkuntza normalizatu den tokietan, hizkuntza da nagusi eta bere funtzioak betetzen ditu. Hemen hizkuntza komunitatea sakabanatuta dago eta trinkotu egin behar da, motibazioa, jakintza eta erabilera sustatzeko.

Eta horretarako, gure ustez, funtsezkoa da euskararekiko sentsibilizazioa izatea: **zein egoeratan dagoen jakitea, gure herrian historian zehar izan duen bilakaera ezagutzea, egun euskararen alde herrian egiten diren ekimenen berri jakitea eta abar.**

Horiekin guztiekin batera, beharrezkoa da norberak bizitzako hainbat arlo eta espaziotan dituen hizkuntza ohituren gainean hausnartzea. Azterketa hori egiten lagundu nahiko genieke datozen jardueretan.

Hasteko, azken denboran izan dituzten bederatzi esperientzia positiboak idazteko eskatuko diegu. Gero, esperientzia bakoitza zein hizkuntzatan izan den zehazteko eskatuko diegu. Ariketa horren bidez, hizkuntza bakoitzak norberarentzat zenbaterainoko pisua duen ikusi ahal izango duzue: bi hizkuntzatan gauzatutako esperientziak agertzen ote dira? Nolako esperientziak ote dira hizkuntzen arabera? Hizkuntzetako batek indar gutxi badu, beste galdera hau ere egin daiteke: esango zenituzke euskaraz izandako bederatzi esperientzia positibo?

Galdera horri erantzutea asko edo gutxi kostatu zaion baloratu daiteke, baita nolako esperientziak diren ere.

JARDUERA1: Idatzi azken aldian egin dituzun 9 gauza gustagarri edo dibertigarrienak... adi! Euskaraz izan bada, idatzi berdez, gaztelaniaz izan bada, gorriz.



Koadernoko 22. orrialdea.

Jarduera honetan sakondu nahi baduzu, hainbat galdera egin dezakezu, taldean elkarrizketa sustatzeko.

JARDUERA2: Eskolatik kanpo norbait euskaraz zuzentzen bazait nola jokutzen dut? Ezezagun batengana zuzentzerakoan, zein hizkuntzatan hitz egiten diot? Irakasleek "egin euskaraz" esaten badidate, zer sentitzen dut? Etxekoek euskaraz hitz egiten badugu, nola hitz egiten dugu euskaraz ez dakien norbait gurekin dagoenean?

Koadernoko 22. orrian

26.- EUSKARAREN ERABILERA NEURTUZ ESKOLAN

Ikasleek beraiek eskolan euskararen erabileraren benetako egoera zein den ikustea nahi dugu. Horretarako, ikasleek erabilera neurtuko dute ikastetxe barruan.

Ikasleen artean neurketa egiteko boluntarioak eskatuko ditugu eta aste batez, hainbat tartetan, ikaskideek darabilten hizkuntza neurtzeko eskatuko diegu:

Sarrera eta irteera tarteetan, korridoreetan, jolas garaian, jangelan, autobus geltokian, eskolarako bidean eta abar.

Aste batez, neurketa egingo dute ikasleek. Ikasleen artean neurketa egiteko boluntarioak eskatuko ditugu, hainbat esparrutan ikaskideek darabilten hizkuntza neurtzeko eskatuko diegu. Neurketa egiteko, binaka joango dira eta egunero hiru kontaketa egingo dituzte, goizean, eguerdian eta arratsaldean. Batek kontaktuko ditu euskaraz aritzen direnak eta beste batek gaztelaniaz aritzen direnak.

Lehen egin duten bezala, taldetxo batean lagun bat hizketan eta hiru entzuten ari badira, lau lagun zenbatuko dituzte hizkuntza horretan.

JARDUERA1: Ikastetxeko eremu bakoitzean egindako neurketen emaitzak:

Koadernoko 22. orrialdea.

27.- EUSKARA NOIZ ETA NOREKIN ERABILTZEN DUT

Jarraian euskara noiz eta noekin erabiltzen duten ikusten lagunduko diegu. Era berean, galdetuko diegu noekin nahiko luketen gehiago erabili.



Jarduera hau egiteko erabilera aitortuaren dinamika erabiliko dugu: hau da, beraiek esango digute.

Hainbat modutara egin daiteke dinamika hori, gure ustez errazagoa egingo zaie galdeketa hein batean bideratuz gero: izendatu lau lagun; zerrendatu asteburuan ibiltzen zaren lau leku; leku horietan zenbat euskara eta norekin erabiltzen duzu? Eta abar: beste aukera bat galdeketa asko bideratzea da: zure eskuinera esertzen denarekin nola egiten duzu gelan? Jangelan zure parean esertzen denarekin nola egiten duzu? Eta abar.

Gero, galdetuko diegu norekin eta zenbat gehiago erabiltzeko prest dauden. Hori ere galdera oso irekia edo oso bideratua izan daiteke: zure parean esertzen denarekin eta abar.

JARDUERA₁: Aukeratu lau lagun eta lau leku. Gero, lagun bakoitzarekin eta leku bakoitzean norekin zenbat euskara egiten duzun idatzi behar duzu sailkapenean dagokion tokian.
Koadernoko 22. orrialdea.

JARDUERA₂: Hizkera informalekin edo lagunartekoarekin ditugun mugak ikustea nahiko genuke segidan. Horretarako, bi taldetan banatuko ditugu ikasleak. Egoera informaletako esamoldeen gai bat proposatuko diegu: irainak, adarra jotzeko esamoldeak, piropoak, animoak, beldurra adieraztekoak eta abar.

Minutuko epean ikasle bakoitzak ahalik eta zerrenda luzeena idatzi behar du. Talde batekoek euskaraz idatziko dituzte eta gaztelaniaz besteek. Gero, euskarazko zerrenda bat irakurriko du batek. Azkenik, eztabaida sortuko dugu: zein hizkuntzatan idatzi dituzue gehiago?

Zein esamoldek dute zuentzat indar handiena? Eta abar. Jarduerari jarraipena eman nahi izanez gero, gela osoari hainbat galdera egingo dizkiogu: zenbat txiste kontalari ezagutzen dituzue? Zenbat euskaraz aritzen direnak? Ekarri burura zuen gurasoak lagunei txistek kontatzen: zein hizkuntzatan ari dira? Kokatu zuen burua futbol partida garrantzitsu batean: jendea epaileari irainka ari zaio, zein hizkuntzatan irudikatzen duzu?

Beste eztabaida bat ere sortu dezakegu: zergatik identifikatzen ditugu egoera asko gaztelaniarekin (horrela bada)? Hainbat egoeratan zergatik bururatzen zaigu gaztelaniazko esamolde gehiago (horrela bada)? Edonola ere, horren guztiaren helburua da konturatzea asko erraztasun handiagoa izaten dugula gaztelaniaz. Erraztasun horrek, ordea, zaildu egiten du euskaraz gero eta gehiago egitea. Horretaz konturatzen badira, ederto!

JARDUERA₃: Zenbaitetan, euskal komunitateak euskararen erabileraren gaineko kontraesaneko mezu asko ematen du. Mezu horiek eta haien kontraesanak ikusten saiatuko gara.

Euskal komunitateak ematen dituen hiru mezu aurkeztuko dizkiegu. Taldetxotan banatu eta mezu horiek antzezteko eskatuko diegu. Antzezpen bakoitzaren ostean, kontraesan horiek bizi dituzten oinarrian zer dagoen aztertuko dugu.

Hainbat adibide:



Seme-alabekin euskaraz egitea (eta euskaraz egiteko eskatzea), baina gurasoen artean gaztelaniaz egitea.

- Etxeko hizkuntza euskara izatea, baina etxetik kanpo leku guztietan gaztelaniaz hastea elkarriketa.

-

Euskara eta gaztelania erabiltzea elkarriketa berean: euskaraz hasi, gaztelaniaz jarraitu, tarteka euskarara itzuli...

Elkarriketaren zati handiena gaztelaniaz egitea euskaraz ari direlakoan, alegia. Ikasleentzako benetakoak diren egoerak eta mezuak topatuz gero, jarduera oso egokia izan liteke. Egoerak beraien errealitatetik urrun badaude, asko kostatuko zaie kokatzea eta ekarpenak egitea.

JARDUERA4: Euskararekiko nolako aurreiritziak izan ditzaketen aztertuko dugu segidan. Horretarako, hizkuntzaren balioa izeneko dinamika egingo dugu. Hainbat irudi eskainiko dizkiegu eta zein hizkuntzatan lortzen dituzten galdetuko diegu, adibidez: Internet, Rock kontzertua, Herri Kirolak, telebista eta abar.

Hasieran, irudiak ikusi eta erantzuna eskatuko diegu. Gero, berriz ipiniko ditugu irudiak eta banan-banan aipatuko ditugu, elkarriketak sortuko ditugu erantzunei buruz. Nahi izanez gero, hainbat adibide eraman ditzakegu prest arlo guztietan euskaraz zer egiten den ikusteko, edo euskararekin erabat lotzen duten arlo batean gaztelaniak edo beste hizkuntza batek zein garrantzi duen ikusteko.

JARDUERA5: Gaztelaniarekin erabat lotzen dituzten jarduera horiek euskaraz ere egin daitezkeela erakutsiko diegu. Hala, galderen bidez saiaturako gara ikasle guztiek gaztelaniaz egiten duten zerbait aurkitzen: eskola-orduz kanpoko jardueraren bat, kultura munduko zerbait, eguneroko ohiturekin zerikusia duen zerbait, esate baterako. Gauza bat edo bi, behintzat, aurkitu behar ditugu. Hurrengo saiorako arlo horretan euskaraz zer egiten den prestatuko dugu. Hori aurkeztu edo erreferente bat bilatuko dugu, jarduera hori euskaraz egiten duena.

Ikusarazi nahi diegu, gaztelaniaz egiten duten hori euskaraz ere normaltasunez egin daitezkeela, eta horri begira balio dezakeen edozein tresna erabiliko dugu. Sakontzen jarraitu nahi badugu, euskaraz edo gaztelaniaz egitea aukera kontua dela esaten digutenean, benetako aukerarik badagoen edo ez ikusi ahal izango dute; hau da, euskaraz egin daiteke jarduera hori, baina ematen digute euskaraz egiteko benetako aukerarik?

28.- HIZKUNTZA OHITURAK ALDATZEKO ERRONKA

Askotan ohituraz egiten diogu lagun bati hizkuntza batean eta beste bati bestean. Horren ondorioz, zenbaitetan, askotan behar bada, gaztelaniaz aritzen gara euskaraz badakitenekin. Aldatu ote daitezke ohiturak, erraza ote da? Horretan ahaleginduko gara hurrengo jardueretan.



Lehenik, hizkuntza ohiturak aldatzeko erronka bat proposatzeko eskatuko diegu, ohiturak aldatu daitezkeela eta horretan ondo pasatu daitezkeela, gainera, ikusi dezaten.

JARDUERA1: Erronka zehatza eskatuko diegu, ikastetxean dauden bitartean betetzekoa. Gure laguntza izango dute horretarako, gogoraraziz, errefortzu positiboak emanez eta abar. Bi edo hiru kide aukeratu beharko dituzte. Koadernoan hauxe jarri beharko dute:

NIRE ERRONKA:

Norekin egingo dut? Noiztik egingo dut?

Zenbat egingo dut? dena, gehiena, tarteka.

Nola lortuko dut hori? Zein izango da urrats zehatza?

Lortu dut?

Epe bat izango dute erronkarako, astebete, adibidez. Garrantzitsua da ez hastea epe oso luzeekin, erronkak benetan lortu ditzaten eta errefortzu positiboak emanez pauso handiagoak ematera motibatu daitezen.

Pauso zehatzaren ideia egokia izan daiteke, adibidez: erronkak irauten duen bitartean, bi edo hiru pertsona horiekin topo egiten dudanean beti modu berean jokatuko dut: elkarrizketa esaldi jakin batekin hasi, goizetan ikastetxera iristean elkarrizketa bat sortu eskolak hasi aurretik eta abar. Era horretan, norberak prozedura oso argi edukitzean, errazagoa izango zaie lortzea.

Koadernoko 22. orrialdea.

JARDUERA2: Lehendik erabilera aitortuaren dinamika egin badugu, hura hartuko dugu abiapuntutzat. Elkarrizketa sortuko dugu ikasleekin: hizkuntza ohiturak aldatzea erraza ala zaila ote da? Hizkuntza ohitura aldatetaren bat jolas moduan planteatzeko gai izan al gaitzke? Ikasleekin batera hizkuntza ohitura aldatetak jolas moduan egiteko ideiak biltzen ahaleginduko gara.

JARDUERA3: Erronka oso sinplea proposatuko diegu eta guk erraz lagundu ahal izango dieguna.

Batetik, kirolean erabiltzen ditugun esamoldeei buruz galdetuko diegu. Ideien ekaitza moduko bat egin daiteke: zeintzuk erabiltzen ditugu? Animoak emateko, kexatzeko, kideei gauzak esateko eta abar. Euskarazkoak eta beste hizkuntzetakoak bildu nahi ditugu.

Gero, behaketa egiteko proposatuko diegu. Boluntario batzuk hartuko ditugu eta eskatuko diegu jolas orduetan beraiek baino helduagoak diren ikasleengana hurbiltzeko futbolearen ari diren bitartean eta zein esamolde erabiltzen ari diren jasotzea.

Horiek bildu eta gero, saiatuko gara esamolde guztiei euskarazko baliokidea bilatzen.

Erronka bat proposatuko diegu: egun jakin batean, euskarazko esamoldeak soilik erabiltzea. Hainbat esamolde hautatzeko dinamikaren bat egingo dugu, horiek erabiltzen hasteko eskatuko diegu eta erronkaren eguna finkatuta utziko dugu: Kirolaren egunean, adibidez. Egun horretan erronka gogoraraziko diegu, lortzera animatuko ditugu eta gure buruarentzat prozedura bat



zehaztuko dugu: sumatzen badugu tentsioa jaitsi dela gu sartuko gara tartean, leoren bat errepikatuko dugu, errefortzu positiboak emango ditugu eta abar. Erronkaren ondoren balorazio bat egingo dugu: erraz lortu dute?

JARDUERA4: Nahi izanez gero, erronkaren gaian sakondu dezakegu. Ikastetxearen eremua gaintutako duen erronka bat proposatzeko eskatu diezaiekegu.

Hiru edo lau laguneko taldeak osatzeko eskatuko diegu. Talde bakoitzak bere buruari bi asterako erronka jarriko dio, ahalik eta zehatzena. Helburu lorgarriak izan daitezten lagunduko diegu. Erronkak askotarikoak izan daitezke: egoera jakin batzuetan haien artean euskaraz egitea, beste batzuen kasuan dena euskaraz egitea, beste batzuk beste taldeko batzuetakoekin dena euskaraz egitea (haien artean lortu dutelako) eta abar.

JARDUERA5: Erronkekin jarraitu dezakegu, oraingoan nahiko erronka berezia proposatuz. Erronka honetan familiak parte hartu dezan eskatuko dute. Lehenik eta behin, familietan hizkuntza ohiturak zein izan daitezkeen galdetuko diegu, hainbat kasu kontuan hartuz: gurasoak euskaldunak direnean

(euskaraz egiten dutenean eta ez dutenean), ez direnean, bietako bat badenean... Gero, kasu bakoitzean, euskarari dagokionez aurrerapauso txiki batzuk zeintzuk izan daitezkeen aztertuko dute: ideien ekaitza moduko bat egin daiteke.

Jarduera 6.- Guraso askok ez zekiten euskara eta ikasi egin dute, seme-alabekin, lagunekin eta lantokioekin hitz egiteko. Zure gelan ezagutzen duzu horrelako gurasorik? Hala baldin bada, elkarrizketa egiozu jakiteko euskara ikastearekin izan duen historia eta egin bere hizkuntza biografia.

29.- GURE PROIEKTUA ERAIKIZ. ATZERA BEGIRA.

HERRIA EZAGUTZEN egitasmoko unitate didaktikoetan herriko ondare kulturala ezagutarazten ahalegindu gara. Horretarako, historian zehar garaian garaiko gure herritarrak nola bizi ziren, zein arazo zituzten, herria nola zegoen eta abar azaltzen saiatu gara.

Orain, ordea, ikasleei utzi nahi diegu lekua. Horretarako, talde txikitik proiektu bat garatzeko eskatuko diegu. Edozein garai edo gai aukera dezakete.

Oso garrantzitsua da ikasleek lana helburu jakinarekin egitea, adibidez: bildutako materialaren gaineko aurkezpena egitea, horretarako ikasleak **binaka lan egitea** eta gidoi bat osatzea proposatu nahi dizuegu; power point bat osatzea, googleko tresnen bidez sarean jarriz etxeokoa eta herritarrek ikus ditzaten eta abar; antzerki edo ikuskizun bat egitea landutakoa aurkezteko; erakusketa bat antolatzea gainerako ikaskideentzat eta bereziki HERRIA EZAGUTZEN!



egitasmoaren barruan gaia jorratzen ari diren ikasle txikiagoentzat, gurasoentzat edo herritarrentzat.

Era berean, proiektuaren bidez zer den nahiko genukeena argi azaltzea funtsezkoa da: **beste garai batean herria nolakoa zen, herritarrak nola bizi ziren eta zer egiten zuten, zer gertaera historiko gertatu ziren eta abar ezagutu eta besteei azaltzea.**

Koadernoan proiektuaren fitxa tekniko modukoa izango dute gida modura. **Taldea osatuta, lanean hasi aurretik, zein garai edo gai landuko duten erabaki beharko dute. Ondoren, informazioa biltzen hasi beharko dute, era guztietakoa: argazkiak, dokumentuak, objektuak eta abar.**

Bildu dutena ikusita, erabaki beharko dute proiektua zein eratan eta nori aurkeztu: power point baten bidez, erreportaia moduko bideo motz batez, ahozko aurkezpen bat erabiliz, erakusketa edo beste moduren batean.

Proiektuaren **gidoia** egin beharko dute, ondoren. Nahi izanez gero, gelako beste kideekin kontrasta dezakete osatzeko eta hobetzeko.

Gidoia garatzeko unea izango da segidan, ekoizpena egitekoa. Eta hori egin eta gero, ezagutzera nola eman aztertzeke garaia izango da.

Horretarako, proiektuan aurkeztutakoaren **sinopsi bat** egitea proposatuko diegu, balizko hartzaileei aurkezpen eskaintza egitean erabil dezaten. Eta azkenik, **iragarki bat** egiteko proposamena egin dizugu.

Aurkezpena ikasle txikiagoei egin behar badiete, lehenago euskararen inguruan hartutako erronken haritik, txikiagoen eredu izatera gonbidatuko ditugu, eta hori euskara gero eta gehiago erabiltzeko urrats txiki bat izatea.

Beraz, azalduko diegu garrantzitsua dela euskararen erabilera zaintzea beraiek txikiagoen eredu direlako. Izan ere, haiekin harremanetan jartzen direnean, euskaraz egiten sumatzen badituzte eredu bilakatuko baitira.

Hori guztia dituzten bitartekoen arabera zabal dezakezue: sarearen bidez, ikastetxeko web-orria bidez, ikastetxeko iragarki taulan ipiniz eta abar. Ea noraino heltzen den gure ikasleen irudimena!

JARDUERA₁: Talde txikietan antolatuko ditugu ikasleak. Talde bakoitzari urte hauetan orain arte landutako garai edo gai bat aukeratzea eskatuko diegu. Horren arabera, proiektuari izenburua jartzeko eskatuko diegu. Ondoren, eta koadernoan duten fitxa teknikoa erreferentzia modura erabiliz, proiektua garatzen lagunduko diegu. Kooperatiboki lan egin nahi badugu, noizean behin elkar-jartzeak egin ditzakegu gelako taldeen artean. Horietan



bakoitzak egiten ari denaren berri eman dezake: zein zailtasun edo hutsune dituen eta abar. Gainerako lagunen artean, behar bada, proiektua aberastu eta osatu ahal izango dute.

Osatu fitxa teknikoa: proiektuaren izenburua, egileak, nori zuzenduta, aurkezpen mota, iraupena, erabilitako bitartekoak, sinopsia, gidoia, iragarkia.

Koadernoko 23. orria.

30.- GEROARI BEGIRA.

Gure herriko historiaren zurrunbiloan bidaia luzea egin dugu. Lezetxikitik gaur arte. Garai guztietan herritarrek hartutako erabakiengatik daukagu dugun herria. Garai txarrak, ilunak, oparoak ezagutu ditu Arrasatek, baina herri ekimentsua izan da bizitzaren arlo guztietan eta gure arbasoen ondorengook jaso dugu.

Egun ere Arrasatek bere nortasuna mantentzen du eta jarraitzen du lanean hainbat esparrutan, herri moduan irauteko: gizarte, lan, kultura, hizkuntza, aisialdi arloan, geroari begira, oraina berehala etorkizuna bihurtzen delako.

Belaunaldiz belaunaldi hainbat pertsona bizi eta lan egin dute herrian eta datozen urteotan gure ikasleak izango dira Arrasate herria aurrera aterako dutena. Beraiek eta beste herrietatik etorriko direnak izango dira gure herrian bizi eta erabakiak hartuko dituztenak.

Horregatik, bilduma hau bukatu baino lehen, sekulako aukera dugu ikasleei galdetzeko zein itxaropen duten, nola irudikatzen ote duten herria geroan.

JARDUERA 1.- Hamabi urte aurrera egiteko eskatuko diegu. Elkarrizketa bidez lagun diezaiekegu beren burua kokatzen: zenbat urte izango dituzten, zer egiten aritzea gustatuko litzaiekeen eta abar.

JARDUERA 2.- Begiratu Arrasateko mapa bere kale, auzo eta eraikuntzekin. Ezer kenduko zenuke? Ezer gehituko zenuke? Hau garatzeko lau laguneko taldeak osatu eta haiekin alderatu beharko litzateke talde bakoitzak proposatzen duena.

Ariketa garatzeko, aurreko unitate didaktikoekin banaturiko mapak lagun izan ditzakete ikasleek, eta mapa arbel digitalean landu nahiko bazenute, jarraibide hauei jarraituz erraz eskuratu dezakete:

<http://b5m.gipuzkoa.net/web5000/>

Gaiaren bilaketa dioen leihoan ipini ARRASATE eta hiru aukera eskainiko dizkizu. Bigarrenaren (ARRASATE, herrigunea/hirigunea) aukeran klik egin BISORE KLASIKOAN MAPAren gainean.



Orrian mapa agertuko zaizu, baita haren gainean lan egiteko dituzun aukerak ere: kontsultak, bistaratzeak, tresnak, ibilbideak eta egindakoa gorde edota inprimatzeko aukera.

Koadernoko 24. orrian

JARDUERA 3.- Zenbat urte izango duzu?

JARDUERA 4.- Nola ikusten duzu zure burua? Ikasten ----- edo lanean

JARDUERA 5.-Nola irudikatzen duzu gure herria 12 urte barru arlo hauetan?

Arloa	
Eskola (Nola emango da?)	
Osasun arloa (aurrerakuntzak, gaixotasunak.	
Informatika (ordenagailuak, sare sozialak, mugikorrak, tabletak, tresna berriak)	
Etxebizitzak (Nolakoak izango dira etxeak?)	
Mugikortasuna (nolako autoak? zein erregairekin?)	
Lana (lantokian, etxean, enpresen izaera: kooperatibak, Estatutuko kapitala, pribatuak...)	
Dirua (eskudirua, txartela, beste metodoren bat...)	

Koadernoko 24. orrian

31.- NERE HERRIA

Egun, gure herriak dituen arazoetatik abiatu eta goiko jardueran azaldutako iritziak kontuan hartuta, 2025ean herriak izan ditzakeen arazo larrienen inguruan galdetuko diegu ikasleei.

Arazoei konponbidea topatzeko alkatearen eginkizunean jartzea proposatuko diegu.

Halaber, herritartasunaz, herriarekiko duten atxikimenduaren gainean galdetuko diegu eta herriko zein arlotan aritzea gustatuko litzaiekeen.



JARDUERA 1.- Zeintzuk dira antzematen dituzun arazo larrienak gure herrian 2025ean?

JARDUERA 2.- Alkatea izango bazina, zein konponbide emango zenieke?

JARDUERA 3.- Gurako zenuke herrian bizi? Zein elkarte edo esparrutan aritu gurako zenuke?

Koadernoko 24. orrian

32.- BAILARA

Bigarren unitate didaktikoan ikasi genuen nola 1200. urtera arte Arrasate Nafarroako erresuman zegoen, baina Gasteizko setioaren ostean, Nafarroaren Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko eskualde batzuk Gaztelako Erresumak konkistatu zituen. Garai hartan, egun ezagutzen dugun Gipuzkoa ez zen existitzen eta bere lurraldean hiru entitate zeuden: "Aitzorrotzia", "Tierra de Ipuscaia" eta "San Sebastian". Eskualde haren barruan Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasate zeuden.

Harrezkero, mendeetan bailarako herri bakoitzak bere bidea egin du bere aldetik herri nortasun propioa garatzen.

Oraingoan, berriz, azkeneko urteotan proiektuak elkarrekin hasi dira lantzen bailarako herriak eta hauxe da, ikasleei proposatzen diegun jarduera, hausnarketa gisa, unitatea bukatzeko, herrien arteko elkarlana balorean jartzeko.

JARDUERA 1.- Antzina beste herri batzuekin osatzen genuen bailara eta gero historian herri bakoitzak bere bidea egin du, baina azkeneko urteotan hainbat gauzatarako eskualdeko herriak elkartzen ari dira: **Debagoineko mankomunitatea, Goiena komunikazio taldea, Arizmendi ikastola, Goieskola: "Debagoieneko eskola publikoa". Mondragon unibertsitatea. Mondragon elkarte kooperatiba...**

JARDUERA 1.- Zure ustez, gero oparagoa izateko, zelan ikusten duzu lan egin beharko luketela herriek: elkarlanean edo bakoitzak bere aldetik?

Koadernoko 24. orrian



33.- EKIN ETA EKIN KANTA.

Xabier Letek sorturiko "Izarren hautsa" kantaren bi estrofa hautatu ditugu unitate didaktiko honi eta bildumari bukaera emateko, letrak ondo adierazten baitu bizitzan pertsonaren ekinzaletasunaren beharra.

Menperatzeko premia, burruka, jakintza eta argia, bide ilunak, lege berriak, jokatzu bizia, aldatzea, indarrak, errotuz, sustriak, lurrari, irautea, ukazioa, beti aurrera joatea..... kanta honetan horrela elkarlotuta. hitz, esamolde gako garrantzitsuak baitira munduan bizitzeko.

IZAN GINELAKO

ERREMENTARIEN ZALAPARTAPEAN bizi ginen eta

HANDITZEN joan ginen

GURE ALTXORRAK zainduz eta gozatuz.

IZAN GINELAKO GARA eta

EKIN ETA EKIN jolasteari, kantatzeari, lanari eta euskaraz egiteari, geure herriak iraungo du.

Herria ezagutzen

ARRASATEKO UDALA



ERANSKINAK

A) 22.- LANDA LANA. GURE ETXEETAKO HIZKUNTZA OHITURAK

INKKESTA.-

-AMA

Nongoa da zure ama?

Euskara ulertzen al du?

- BAI
- GUTXI
- EZ

Amak Badaki euskaraz hitz egiten?

- BAI
- GUTXI
- EZ

Zein hizkuntza erabiltzen duzu amarekin hitz egiteko?

- Beti gaztelaniaz
- Gaztelania euskara baino gehiago
- Euskara gaztelania baino gehiago.
- Beti euskara
- Beste hizkuntza bat.

-AITA

Nongoa da zure ama?

Euskara ulertzen al du?

- BAI
- GUTXI
- EZ

Amak Badaki euskaraz hitz egiten?

- BAI
- GUTXI
- EZ

Zein hizkuntza erabiltzen duzu amarekin hitz egiteko?



- Beti gaztelaniaz
- Gaztelania euskara baino gehiago
- Euskara gaztelania baino gehiago.
- Beti euskara
- Beste hizkuntza bat.

FAMILIAREN INGURUAN

Zein hizkuntza erabiltzen duzue neba-arreben artean?

- Beti gaztelaniaz
- Gaztelania euskara baino gehiago
- Gaztelania euskara adina
- Euskara gaztelania baino gehiago.
- Beti euskara
- Beste hizkuntza bat.

Zein hizkuntza erabiltzen dute gurasoek beren artean?

- Beti gaztelaniaz
- Gaztelania euskara baino gehiago
- Gaztelania euskara adina.
- Euskara gaztelania baino gehiago.
- Beti euskaraz
- Beste hizkuntza bat.

b) EUSKAREKIKO NIRE KONPROMISOA. 22.ORRIALDEA

*HIZKUNTZA BIOGRAFIA

1) Non jaio zinen?

2) Zure gurasoek zein hizkuntzatan hitz egiten zuten?

3) Zer sentitzen zinen euskara ez jakiteagatik?

4) Euskara ikastera zerk bultzatzen zintuen?

5) Nola ikasi duzu euskara? Zure kabuz, eskultegian, familian? Zenbat denbora eman duzu ikasten? Jarraitzen duzu ikasten?

6) Euskara erabiltzeak zuretzat zein esanahi du?

7) Zure seme-alabekin eta lagunekin erabiltzen al duzu?



8) Egun, non eta zeinekin erabiltzen duzu euskara?

9) Zein sentimendu inspiratzen zaitu euskarak?

C) LIZARDIK 1930EKO UZTAILAREN 30ean emandako hitzaldia)

Arrasatear euskalatzaleok:

Zuen aurrean eta euskaltzaleen alde hitz egiteko aukeratu nautelarik, ezin ahaztu dezaket inola orain hiru urte zuen herri eder honexek susperrazazi gintuzula euskalatzaleok.

Nire agurra, bada, lehen lehenik Arrasteri; nire bihotzetiko agurra, anaikero eta euskaldunki elkartu eta halako ikasbide bikaina eman zenigutenoi. Euskal Herri- zaleok garai hartan kikilduta bizi ginen, orduko gure egoitzari bizitzea esan ahal baliezaio. Geure herriari, geure izaerari, geure hizkuntza bigunoni maiterik agertzea bekatu zela ia sinsitarazita geunden. Harri astun batek azpian harturik bezala, itxaropen-begiez etorkizunari begiratzeko ez ginen gauza. Gureak eta gure amets zaharrenak egin zuelako ustean... Euskal Herriak gehiago burua jasoko ez zuelako etsian...Zenbaterainoko indarra duen, jaunak, giroak, erdarazko "ambienteak" gure ingururua jo duen haizeak!

*Gau beltz hartan, Elgoibarrek eta Mutrikuk ixar bana ireki zuten...Dardarrez izeki, argi emateko ere lotsa. **Baina, hurrena, hemen, zuen herri honetan, Arrasaten, ilbeteak (ilargi beteak) ilunpea zilarrez jantzi zuen;** goiz berri baten itxaropena, eguzki berri baten uste gozoa bihotzetara zekarkigularik.*

Fede handia behar zen, enetxoak, orduan hala jokatzeko; eta fende handi haren jabe, ez beste zereginik gabeko handikiren batzuk, ez gizon buru-jantzi eta korbata apaindunek, baizik gizon lau batzuk, bekokiari izerdia atereaz bizi diren langile batzuk izan zirenen. Eta fede gori bat beti baita hazi ernegarri, gu, orduko lotiok, lagun bizkor haien deidarrek esnarazi gintuzten.

Ni, neurez ari naiz, nire buruaz dihardut; loti haien artean bainengoan. Haibesteraino, ezen ez bainintzen etorri ere egin Arrasateko Euskal-egunera. Gerora, entzunez eta irakurriz, ikasi nituen hemengo gorabehera pozgarriak; eta barrunbean argixka mehe bat piztu zitzaidan...Euskal Herriak burua jasotzerik ba ahal ote zuen oraindik?...Ez al zegoen guztia ustel, guztia galdua?...

Izan ere, gizakumea baino eskasagorik ez da ezer munduan.Haize-aldi batek etzanarazten gaitu; bultzakkadarik txikienak amilarazten; katilukada bat uretan itotzen gara. Hiru urte txar, lau urte txar, sei urte txar, Jainkoak eskuan litzakeen urte eta aste guztien hondarra dirudigu.Ez gogora ekartzen, alegia, herrien bizitza, luze dela; are mendeen eta gizaldien buruan ere, herriaren odola beti doala gorri, beti bero doala. Eta Euskal Herriak inork noizdanikoa den ez dakigun herri hau, ez dutela, ez zaharraren sitsak jango, ez haizeen indarrak botako, ezta itsaso amorratuak irentsiko ere!



Lehen aipatutakoa aldi txar hark, horratik, zerbait on ere irakatsi zigun. Alegia, euskaldunok anaitasunera, eta ez elkarren arteko ezinikusira, jo beharrean geundela: gutxitxo izanik, maitezko lokarriz bildu behar ginela, eta ez borroka makilez sakabanatu.

Eta orduan, Arrasateko euskal-egunez, orain gauden areto honetan bertan, txiki eta ahaul, ume axalgorri, "Euskaltzaleak" deritzan elkarteak sortu zen. Gaur, hiru urtez gero, Euskal Herri osora egunero bere hotsa zabaltzen du eta ez nizueke gezurrik esan nahi, laster euskal Herriko lagunarterik ugarien eta indartsuena izango dela adieraziaz.

Zer gara, bada, "Euskaltzaleak", eta zer eskatzen diegu euskaldun izatea ukatu nahi ez duten guztiei?

Zuekin, arrasatearrok, ez dut hori adierazten luzaro jardun beharrik.

Zer egin zenuten orain hiru urte jai bikain haiek gertatzeko? Neuk esango dizuet. Herriko seme guztiek, nor nolako zen begiratzeke, nor nondik zetorren gogoan hartu gabe, , elkarri eskua eman eta etxe garbiko senide zintzoak bezala jokatu zenuten. Eta zuen elkartze hori zertarako izan zen?...Euskaldunen ezaugarri guztiak goratzeko eta edertzeko: gure kristautasuna, gure ohitura eta jolasak, gure euskara berdingabea goratzeko eta edertzeko. Hitz batez: amari egun eder bat opa izan zenioten, eta armaren begiek egun eder hartan Arrasaten ez zuten zema-alaba onik baizik ikusi.

Bada, horra beste azalpenik gabe, Euskaltzaleak-en izaera osoa. Egun bakar batez ondo Egina, orain egun askotarako , bizi zareten arteko agintzea eskatzen dizuegu. Gu geu izateaz ez gaitzela lotsa, baizik bidezki harrotu, lurbira osoan euskalduna euskaldun agertu izan duten ezaugarriak ez ditzagula oinperatu, ez galdu; goratuditzagun eta gure haurren bihotz gurietan iltze gorituz josi.

Are Aitor-etxeetan ere (etxe nobleetan, alegia) sortzen baitira ume ergelak, badukezue honelatsu mintzatuko zaizuen euskaldunik asko: zertan gure izaera zainagotu eta nabarmenagotu behar dugu, zertan gure hizkera gorde eta landu? Ez al litzateke, bada, aurrerapen handi bat guztiok gizadian, izatez nahiz hizkeraz, batasunera jotzea?

Gizagaixoak! Ez dakite ez garela munduan guztiak behin ere bai izango, Jainkoak hala nahi izan duelako, eta ongi nahi izaki ere, ludiaren edertasuna ezberdin horrexek jazten baitu gehien!

Utzi diezaigun euskaldunol euskaldun izateari, urtu gaitezen eta nahasi inguruko erbesteekin... Besteek ere guk bezala jokatuko luketela uste la duzue? Ederki eman ere! Gaur, bera? Mundu bazterreko herri txiki guztiek gero eta areago beren burua zaintzen eta indartzen diharduten garaian? Orain gu ezereztu, orain geuk geure burua hondatu, gizadia berdintzen hasidadin? Hori egitea hainbatsu litzateke nik orain zuei esatea: " Jaunak munduan jende gehitxo gaudek, asoz hobeto bizi ahal izango ginatuek bakantxeago izanda; beraz nondik-bait hasi behar da-eta? Nire burua bota dezadan leihotik behera..." Zer esango zenukete? Badakit aurki ninduzuela Santa Agedan sartua. Eta hori egitea eskatzen diguten euskaldunak ote dira, bada, euskaldun zuhurrenal, euskaldun buru jantzienak, euskaldun gurenak? Bada, nik, (jaun horiek astotzat joko banaute ere), nahiago dut ibai



txiki izan, baina ene urak neronek itsasora eramateko jabe; eta nire izena eta nire izana galdu, ibai haziago bati nire burua eman beharrez.

Zertan gorde gure hizkuntza? Esango dizuete. Zertan gizon guztiok era batez ez hitz egin behar?...Bada Jainkoak gure artean Babelgo torre bat izatea agindu duelako: Jainkoak gizon ongi-hazi guztien bihotzetan nor bere hizkerarenganako maitasun Gori bat itsasi duelako.

Zergatik-galdetu egiten dut nik orain- lanbide horretan ez dira hasten oraingo hizkera jantzienak, oraingo hizkera harroenak? Bildu bytes batzarre batean ingelesa eta frantsesa eta gaztelera, eta alemaniera eta italiera, eta abar. Eta elkarri esan biezaiote: nor dugu gure artean zabalduen, nor ederren? Holako? Bada, bedi horixe gaurdanik munduko hizkera bakar: geure buruokhil ditzagun gainerakoak... Zer? Berriro ere Santa Ageda-bidean jarri nahi nauzue...

Asma dezagun, ordea, zenbait errazagorik, bidezkoagorik. Inor hiltzen ibili gabe, hizkera horietatik bat aukera dezagun herrien arteko hartu-emanetarako. Iraun bezate besteak, nor bere mugapean, eta norik guerea erabil dezagun etxerako, lagunarte, mugabarrengo arazoetan eta elerti edo literaturan. Jakingai sakonetan, erbeste arteko salerosketa eta abarretarako bestea: guztiekiko hizkuntza edo " lingua universal" delakoa. Nork ukatu dezale hauxe litzatekeela elebitza edo "bilinguismoa" zuzena eta bidezkoa, gutientzat berdina? ...Bada, hizkuntza handiek, hizkuntza landuek, hizkuntza aipatuek hori ere ez dute nahi...norbera nagusi izatekotan ez bada.

Baina zertan ari naiz, oraintxe esan dudan elebitza edo " bilinguismoa" hori ezagutu izan baita munduan, eta hizkera horiexek, gaur amainen bezala agertzen zaizkigun hizkuntza horiexek, "bilinguismoa" zuzen ura galarazi baitute! Bai, enetxoak, bai. Orain hirurehun urte oraindik latina zegoen munduan nagusi jakingai guztiak ikasteko eta erabiltzeko. Huraxe zen (gaur elizarentzat ere baden bezala) lehen esandako gain hizkera, guztiekiko hizkera 2 lingua universal" hitz batez. Nortzuek hondatu dute nork bere hizkera maitatu eta landu beharrez? Bada, gaztelarak, ingelesak, frantsesak eta abarrek; eta hori euskara baino arloteagoak ziren garaian; eta hori beren artekorik gehienak latina ama zutelarik!

Beste bide bat asmatu nahi iza da geroago. Hizkuntza izun bat sumatu 8 esperantoaren aditzea guztiok duzue) eta huraxe gustillo irakatsi... Baina, ... hori ere atsegin izan ez hizkuntza handientzat, eta horra asmo eder hori poto eginik.

Eta orain badiotsuet nik: " Hizkuntza haien aldeko maitasun Gori hura eder bazen eta begiragarri, Nola daiteke itsusi eta txaldan guk guerrea maite izatea?

Ez jaunak. Gure burua ibaira botatzeko bagaude, ikus dezagun aurrena ongi inguruko beste guztiek ere geurekin batean botako al duten. Ez dezagun egin, guk bota geurea eta besteei barrebidea eman. Ez dezala inork Euskal Herriaz esan behar izan: "Hemen datza bere burua hil zuen herria, are bizi izateko adina kemen izan ez zuen herri ergel-lotsagarria!-

Ez dut askorik gehiago luzatu nahi.



*Soilik-soilki, hobeto ikus dezazuen zertzuk egiten laguntzeko-zeren izenak eman behar baitzkgizue-
esan dezagun laburki, "Euskaltzaleak hemen jaio ezkerotik egin duenaren berri.*

*Zumagarrako euskal egun oroigarria. Andoaingoa, Segurakoa, laster Bergarakoa ere eta
Otxandiokoa : bertan gure jolas garbiak, -dantza dela, pilota dela, palanka, bertsolariak eta abar-
eder-agertu: bertan euskara goratu eta umeei maitarazi.*

*Euskal idazle Batza deritzan euskarazko eskribatzaileen elkarte irasi edo fundatu. Betirako sari bat
asmatu eta bilduarazi, urteko euskarazko artikulurik onena sariztatzeko edo premiaetzeko.*

*Euskerazko Poesia edo Euskla-Olertiari hegoak luzatu, olerkariak berotu izan baitute herria pizkunde
guztietan.*

*Euskarazko Teatroa edo Euskal-antzarria 8 oraindik gutxi bederik) xuxperrarazi, eta Euskal-
Txontxongiloak edo guignola" jarri.*

Euskerazko liburu salketak eratu.

*Euskerazko eguneroko periodikoa Nola ta zenbatez egin daitekeen aztertu, eta asmo handi hau egin-
bidean sartu.*

*Eta, azkenik, ez luzatzeko: oraindik ere herenegun, badakizue zer besterik egin dugun?... Donostiako
antzokirik ederrenean, udararen gorrienean, jendea habea jotzeraino erakarri, eta Euskal Herriko
neskatxa haniki sorta uari bati 8 are markesak ere tartean bai baitziren) euskara hutsez
jardunarazi.Euskerari Emakumeen Maite Agurra eskeinarazi, bertakoei eta erbestetarrei oso goitik
hauxe esanaz: euskaraz hitz egitea, alegia, ez dela hemndik aurrera baserriarren eginbeharra: goi-
goieneko alabak ere harrokiro erabili nahi dutela ezpainetan, gurasoengandiko hots ezta duelako,
eta, beharbada, euskaraz ari direnean bezain eder eta laztan inoiz beren buruak agertu izan ez
dituztelako.*

*Zer eskatzen dizuegu gauza eder horiek egiten laguntzeko, zer, zeuen eta nire herria hil ez
dadin?...Borondate on apurtxo eta eguneroko xentimoa!...Eguneroko xentimoa Euskal herriaren alde
ematea eskatzen dizuegu bai, zineari, ardandegiari eta jolasari ez bat baizik ehun ere ematen diezuen
garaian.*

*Euskaldun on guztiek dute gure elkarte honetan sarbiderik. Inori ez zaio galdetzen zein politika
aldekkoa den, ezta politika zer den badakien ere. Bi hesi bakarrak ditugu:
Jainkoa eta bere lege zuzenak ez oinperatu: Euskal Herria bihotzetan eduki.*

*Eta bitez nire azken hitzak bereziki emakumezkoentzat. Gizasemeok bakarrik ez goazke urrutira ,
zuen behar gara edozertarako. Eta edozertarako baino beharrago zaituztegu geure herri hau
jasotzeko.*



Zuek zaitetzugu asegarri, zuek atsedean, zuek akuilu, zuek artizar eta eguzki. Eta zuek zaituztegu (hau ez ahaztu behin ere) zuek zaituztegu gure haurren ama eta amagai. Zuen eskuek taxutu eta hazi bezalkoxeak izango dira bihar gure haurrak...izango dira bihar euskaldun berriak. Aintza handia, gloria handia zuena honetan ongi jokatzeko baduzue, lotsari eta erantzunbehar larria ere, ordea, eginbeharrari gibel-ematen badiozue.

Entzun hitz hauxe soilki. Asaba zaharren gogoaz elkartzen gaituen urrezko kate zaharra, ez ezazue, arren, emakumeok, esku laztankor horiekin betirako eten eta apurtu.

Agur guztiok.

Eta guztiok otoitz bat zuzendu diezaiogun Iñaki Deun, euskaldunen Zaindariari: Euskal Herriak iraun dezala, kristau ta euskaldun, mendeen eta gizaldien hondarreraino ;

Hala bedi.

(Julen Arexolaleibak egokitua)

(1996ko azaroaren 15ean, Lizardiren erakusketaren inaugurazio ekitaldian, San Viator ikastolako lau haurrek irakurria)

d) ARO GARAIKIDEAREN GARAPENA, KRONOLOGIAREN BIDEZ AZALTZEA.

1841.- Aduanak Ebrotik Bidasoara ekarri zituzten.

1850.- Arrasaten bi burdinola zeuden

1869.- "Vergarajauregui, Resusta y Cia" fabrika sortu zuten.

1873.- 10 urtetik beherako haurrek lan egiteko debekua onartu zen.

1889. Tren Vasco Navarra Gatzagara iritsi zen.

1894.- Elektrizitatea Arrasatera iritsi zen. Telefonoa ere bai.

1896.- Uztailaren 4, 5, 6 eta 7an Gipuzkoako lehen euskal jaiak (lore jokoak) Arrasaten antolatu ziren. Meatzerrekatik ura ekartzeko lanak egin ziren.

1900. Zaldibarko frontoia egin zuten . Udal azoka egin zuten

1902.- Biteri eskolak zabaldu ziren. Udal hiltegia zabaldu zen.

1906: Unión Cerrajera sortzen da. Estolderia jarri zen herrian.

1913: Arrasateko lehendabiziko futbol taldea sortzen da.

1916: Greba Zerrajeran., hiru hilabeteko iraupeneko.

1918.- Tren Vasco Nabarroa Arrasatera iritsi zen. Historia iturri batzuk 1917ko abenduaren 22an iritsi zela esaten dute.

1924: Elma sortzen da ,akziodunak: Roman eta Francisco Velez de Mendizabal, Eugenio Echevarria, Leibar eta Arkauz/Aguirrebeitia/ Arregui.

1928: "Asam" Industria sortu zen

1933: Sufragio unibertsala (gizon eta emakume).

1934: Urriaren 5eko iraultza. Marcelino Oreja, Dagoberto Resusta eta Eugenio Edurra hil ziren.

Arrasatear ugari atzerrira joan ziren.



- 1936: Arrasate tropa frankisten menpe. Tropa frankistek 46 arrasatear fusilatu zuten. Euskal batailoiak sortu ziren.
- 1939: 36ko gerra bukatu zen.
- 1941: Jose Maria Arizmendiarieta Arrasatera heltzen da.
- 1944.- Juvenduk Deportiva Mondragon sortu zuten.
- 1943: Eskola Profesionala (Aprendices) eta Liga de Educación y Cultura sortzen dira.
- 1955: Ulgor enpresa sortu zen Gasteizen eta 1956an Arrasatera etorri zen.
- 1956.- San Jose kooperatiba sortzen da.
- 1957.-Talleres Arrasate Cooperatiba industrialia sortu zuten..
- 1958: Gasteiz-Ondarroa karretera Garibaitik.ETA sortzen da.
- 1959: Caja Laboral sortzen da.
- 1963: Eskola Profesionala Iturripeko instalazioetara lekuz aldatu zen..
- 1966: Bedoña, Aretxabaletatik Arrasatera pasatzen da (egungo Arrasateren mapa osatuz).Alecoop sortu zen.
1967. San Frantzisko Xabier ikastola sortu zen.. Vasco- Navarro trenak kendu zuten.
- 1970.- Burgoseko epaiketa.
- 1971:"Danok"elkarteak Zaldibarren "Kantaberri" jaialdia antolatu zuen.
- 1976.- Santamas jaiaren berreskurapena.
- 1976.- Urriaren eta azaroaren, hurrenez hurren, Jose Luis Iñarra parrokoa eta Jose Maria Arimendiarreta hil ziren.
- 1977: Franco ondorengo lehen hauteskundeak. Mari Kajoi jaiaren sorrera. Musakola kiroldegiko instalazioak zabaldu ziren.
- 1978: Constitución espainiar buruzko erreferenduma..
- 1979: Lehenengo udal "demokratikoak", Autonomia Estatutuak.
- 1979: Herriaren izena Arrasate nahiz Mondragón dela erabakitzen du Udalak.
- 1979: Gipuzkoako BBNN eta Eusko Jaurleritza berriro ere legezatuak.
- 1983: AED sortzen da.GAL sortu zen..
- 1985: Arrasatek 26.633 biztanle (maximoa).
- 1986: Lehendabiziko emakumezkoen futbol taldea sortu zen.Ura Urkulu urtegitik ekarri zen. OTANeko erreferenduma egin zen..
1988. "Arrasate Press" euskarazko astekaria sortu zen. Txatxilipurdi sortu zen.
- 1989.- "Astore" enpresa sortu zen. Arrasateko "Maxi Eroski" zabaldu zen,geroago Hiper bihurtu zen.
- 1990.- Arrasate telebista sortu zen. Arrasateko sahiesbidea zabaldu zen.
- 1991.- AGAKO sortu zen.
- 1995.- Udalak emakume saila (berdintasun saila) sortu zuen.Union Cerrajerako instalazioak langileen esku gelditu ziren.Ekin euskara elkarteak sortu zen.
- 2000..- Goiena enpresa sortu zen.
2003. Emakume txokoa zabaldu zen.
- 2004: Autopista iritsi zen Musakola Juan Karlos I.a Arrasaten.
- 2007.- Roneo enpresa desagertu zen.Mojategiko futbol,rugby eta atletismo instalazioak zabaldu ziren.
- 2009.- Autopista Arrasatetik Gasteiza doana inaguratu zen.AHTko obrak hasi ziren Arrasaten,
- 2011.- Aieteko bake konferentzai ETAK bukatutzat ematen du borroka armatua.
- 2013: Fagor Elektrotresnak kooperatibak urriaren 16an ordainketa etendura aurkeztu zuen. 100 urte bete zuen futbolak Arrasaten.



2014.- Uztailen Cata enpresak erosi zituen Fagor Elektresnen aktiboak 42'5 milioi euroengatik .Fagor elektrotresnen koperatibeen hainbat kaltetuk Ordaindu eta Eskuratu elkarteak sortu zituzten.

2015.-. Arrasaten zaborra biltzeko sistema berria ezarri zen, lehengo edukiontziez gain, materia organikoa eta errefusa biltzeko txipdun txartelaren bidez sotzeko edukiontziak jarri ziren

2016. "Erain Debagoiena " ekimenak ekainaren 12an Debagoiengan eta Arrasaten, herri galdeketa bat egingo du. Galdera hauxe izango da: "*Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar*"? Bai/ez.

2016.-Arrasaten 22.055 biztanle: (0-19 urte bitartekoa) %16'17, (19-34 urte bitartekoa) %16'84, (35-64 urte bitarteko) %44'17 eta (64- urte bitartekoa) %22'82).

BIBLIOGRAFIA

*LIBURUAK/txostenak/ artikuluxkak.

HIK HASI aldizkaria. "Herria ezagutzen 6. unitate didaktikoa eta haren gida pedagogikoa"

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA: "Arrasate gure herria", Arrasateko Udala, 1993.

JOSEBA INTXAUSTI; "Euskara, Euskaldunon hizkuntza". Eusko Jaurlaritz 1990.

JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL: "*Nire haurtzaroko Arrasate*", Arrasateko Udala, 1996.

KOLDO ZUAZO ETA BADIHARDUGU: "Deba ibarretik euskararen herrira"

"Gazte hizkera: jardunaldien hitzaldiak eta ondorioak". Urtxintxa eskola. 2005

ARRASATEKO UDALA. "Mapa toponimikoa". Arrasateko Udala eta Eusko Jaurlaritz 1998

OCTUBRE TALDEA: "Arrasate 1936: Belaunaldi etena. Arabera argitaletxea. 1987

ARRASATEKO UDALA: "Arrasateko emakumeak, XX. mendean". 2002 urtea

AUÑAMENDI ENTZIKLOPEDIA. <http://www.euskomedia.org/aunamendi>. Acción popular Vasca-Euskaltzaleak.

FRANCESCO TONUCCI; "Haurren hiria". Txatxilipurdi elkarte 2013.

Wikipedia.: "Euskaltzaleak"

JOSE LUIS ORMAETXEA LASAGA: "*Arrasateko Toponimia*" Euskaltzaindia. 1996

JM Velez de Mendizabal, JOSE ANGEL BARRUTIABENGOA, JUAN RAMON GARAI: "Ama Cerrajera""101". 2007. urtea.

JERARDO ELORZA ETA BESTE BATZUK: "Arrasateko euskara". Arrasateko Udala. 1999

LEIRE PARRA/ISABEL ARAMENDIA. "Arrasate, langileek eraikitako herria". Arrasateko Udala. 2004. urtea.

JOSE ANGEL ACHON: "A voz de concejo". Gipuzkoako Foru Aldundia.

ARRASATEKO UDALAREN ARTXIBATEGIA: Hainbat informazioren gaineko xehetasunak

WEB ORRIAK eta ARTIKULUXKAK

Arrasateko "Ahotsak" proiektuaren web orria: www.ahotsak.com/arrasate.

AED Elkarte, Txatxilipurdi elkarte, Ekin elkarte, Goiena elkarte eta Emun enpresaren web orriak

Herria ezagutzen

ARRASATEKO UDALA



AED elkarteak: Kike Amonarrizek, Jon Sarasuak, Pako Aristik eta Lorea Agirrek emandako hitzaldien testuak. 2013ko urtarila.

AED elkarteak.- "Saperokerixak" Abenduko alea. 2012ko abendua.

MONDRABERRI: "KOLDO ZUAZO: " Hemengo euskalkiaren ardatza ez da Bizkaia, Gasteiz baizik" baten kronika". Mondraberrin argitaratua.2013.

EHU/UPV.- " Euskalkiak gaur"; " Koldo Zuazo.

GARA egunkaria: Koldo Camposen artikuluxka: "Españolizar Euskal Herria". 2012ko abenduan.

Arrasateko Udaleko Euskara zerbitzua" Euskararen kale erabilera Arrastan 1988-2011 aldian.. 2012ko maiatza.

Euskoneuww/media.Jose Maria Velez de Mendizabalen artikuluxka;"Juan Arana, ehun urte". 2010.

GOIENA.- Estepan Plazaolari egindako elkarrizketa, "Gazteak euskarazko hedabideetara ekartzeko modua da eurentzat egin ordez eurekin egitea". Eneko Azkarate.

BERRIA.- Arantxa Elizegik egindako artikuluxka "Adingabeak eta teknologia berriak" pantailari kateatuta" Lander Muñagorrik egindako artikuluxka. " Sendotzeko urtea"

Julen Arexolaleiba: Lizardik Arrastan 1930eko uztailaren 30ean emandako hitzaldiaren egokitzapena

<http://www.arrasate-mondragon.org>

Arrasateko Udaleko Euskara saila; "Euskararen ezagutza Arrastan, 1981-2006.

Arrasateko Udaleko Euskara saila; "Euskararen erabilera 1988-2011.

<http://www.argia.com>

Argia aldizkaria: Lorea Agirrerri egindako elkarrizketa" Oro har, gure kulturaz turista japoniarrek duten irudia daukagu". Sustrai Kolina.

HIK HASI.- "Xamar"i eginiko elkarrizketa. 2011ko ekaina

["http://www.euskonews.com](http://www.euskonews.com)

"JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL Pedro Viteri Arana :175 urte.461 zenbakia. Emandako hitzaldi batetik hartuta.

JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL: " Union Cerrajera SA un patrimonio de cien años (I/II)

<http://www.euskomedia.org/aunamendi>

JUAN CARLOS GUERRA: " Un patriota vasco en el siglo XVI". Juan De Aroz de Uriarte

Euskara zuzentzailea.- Karmel Uribarren.

